

Literatur kritika eta teoria kritikoak: beraun historia eta arkeologia

JOSEBA GABILONDO
(U.C.S.D., SAN DIEGO, AEB)

Abstract

This article deals with literary criticism's history, from its origins to its demise and the rise of the so-called "critical theories" as taking over from the former. The first part of the article sets literary criticism's history from its beginnings in German romanticism to its end in French structuralism and poststructuralism. The thesis is that literary criticism, as all the other human sciences, has been a historical institution which Western modern society has developed throughout the nineteenth and mid-twentieth centuries. The paper defends that bourgeois society, through literature and art, endowed the modern subject with an aesthetic view that constructed it as subject and that, literary criticism, thus, became the institution, among the human sciences, which provided a scientific discourse on literature. Finally, the attention is drawn to the crisis of bourgeois society at the end of the nineteenth century and beginning of the twentieth, which brought in the crisis of literature and its criticism. As a result, the paper continues, literature evolved to states of social isolation and self-referentiality, and literary criticism endeavoured to give account of the retreat of literature from society through different formulations based on the concept of "form."

The second part deals with critical theories. They are explained as rising from the transformation of modern society into the postmodern cultures of postindustrial societies. Emphasis is placed on the consequent transformation of postmodern subjectivity which becomes fragmented into all forms of subjectivity that were excluded by modern society: women, third world, masses and so on. The second thesis of the article is that critical theories are different discourses accounting for the modern exclusion of those subjectivities and that these discourses are taking over the human sciences. Finally the article defends that critical theories create discourses that make possible the development of the aforementioned forms of subjectivity in postmodern cultures. The approach is basically historiographical and updates recent similar accounts in Spanish and Basque.

I. Literatur kritika. Bere historia. Lehen hitzaldia¹.

1. Sarrera. Gaurko hitzaldian, lan eskerga bezain eskergabea eman zait, alegia literatur kritikaren historia bat egitea beti ere ikuspuntu historiografiko bati eutsiz, eta guzti hau bi saiotan, gaurkoa eta hurrengo egunekoa hain zuzen. Beraz hiruzpa-

(1) Artikulu hau Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Saileko doktoradutza dirulaguntza bat jasotzen ari naizelarik idatzi izan da. Nire eskerrak Luis Madureira, Andrea Slane, Martin Padget, Don Wayne, Fredric Jameson, Joe Solomon, Jon Juaristi eta Jesus Maria Lasagabaster-i. Artikulu hau hitzaldi gisa 1989. go Euskalerriko Uni-

lau kontzeptu oinarrizkori helduko natzaio, eta hiruzpalau kontzeptuon inguruan aipuzko eta bibliografiatzko parafernalia bat hedatuko badut ere, oreka zail bati eusten saiatuko naiz goiko gaiaren izenburuak dioena kunplitu nahiz. Sinplifikazioak ekidinezinak izango badira ere, ikuspegi orokorraren abantaila ordaineko izango dela pentsatzen dut. Bidenabar ikastaro honetako beste zenbait gai filologiko eta linguistikoren hoztasuna konpentsatzeko edo, halako idazketa literarioagoa eta tonu ironikoago bat lagungarri izango direla erabaki dut.

Hitzaldi honetako lehen kontzeptu edo ideia giltzarria zera da, alegia literatur kritika ez dela betidaniko ihardun ahistorikoa (Platoren garaitik honantza edo) bai-zik eta sorrera bat eta amai bat duela, gaur egun lekuko garen amaiera hain zuen. Hitzaldi honen tesia beraz zera da, *literatur kritika gizarte instituzio modernoa* dela eta modernitatearen amaieran bizi garen mementu honetan literatur kritikaren amaia ikusten ari garela. Nolabait esateko, gaurko hitzaldian literatur kritikaren historia bat egingo dut bere zentzurik errotikakoenean: literatur kritikaren jaiotzaren eta heriotzaren narrazioa². Hurrengo eguneko hitzaldian literatur kritika hasi berri dugun postmodernitatean teoria kritikotan nola barreiatu den azalduko dut. Bi kontzeptu hauek, teoria kritikoa eta postmodernitatea, izango dira hurrengo hitzaldiko gai giltzarriak.

2. Erromantizismoa. Literatur kritika modernitateak sortzen duen instituzioa da³. Zehazkiago erromantizismo alemaniarak XIX. mendean sagaratu zuen lehen aldiz diziplina hau eta instituzionalizatu. Erromantiko alemaniarak izan ziren lehenak literatura bere hartan unibertsitatean barneratzen eta hári buruzko jakintza edo diskurtsu unibertsitaria bilakarazten⁴. "Kritika" hitzaren erabilpena literaturaren tes-

bertsitateko Udako Ikastaroetan eman nuen artikulu honen testuingurutzat oso ironikoa gertatzen den ikastaro batean: "Euskalaritza XX. mendean". Garbi dago literatur kritikak oraindik ere itxaron behar duela filologoz eta hizkuntzalariz jendekatutako herri honetan beste zenbait herritan dagoeneko eraldakuntza errotikakoa ezaguru duenean. Ironiak alde batera utziz, eskerrak eman nahi nizkioke halaber Joseba Lakarra-ri literatur kritikaz zerbait esateko aukera eman zidalako. Bere gonbidapenik gabe artikulu hau ez zatekeen idatzi izango. Artikulua hitzaldi gisa emateko idatzia izan zen. Azkenik beronen hitzaldi itxura gordetzea erabaki dut, bere ahozko estilo informala artikularen alde ezabaezina dela eritzi baitiot. Hitzaldia historiografikoa izatea gomendatu zitzaidanez ezusua den arreta jarri dut bibliografia zabala ematen. Euskalerriko literatura eta kritikaren azalpena kontzienteki ar utzi da eta ez luzatzearen ez dut testuetatik pasaterik aipatu. Literatura eta filosofiazko lan klasikoen jatorrizko titulua hiruzpalau hizkuntzatan datozenez, testuaren barnean euskaraz eman ditut (inoiz itzuliak izan ez badira ere) eta jatorrizko titulua oinoharretan ezarri. Idazlan teknikoak beti ere jatorrizko hizkuntzan aipatu ditut.

(2) Sekula baino argiago suertatzen ari da epistemologian historia oro istorio dela eta beraz narrazioa azken funtsean. Historiak modernitatearen narrazio hegemoniko izateari utzi dioenez, erabat kontziente naiz narrazioen zilegiztapena ez dela posible eta beraz nire narrazio hau istorio posible bar baino ez dela. Bere zilegiztapena beronen eragin politikoaren arabera neurtu ahalko da. Ikus Hayden White, *Metahistory: The Historical Imagination in Nineteenth-Century Europe*, Baltimore eta Londres, The Johns Hopkins University Press, 1973.

(3) Literatur kritikazko sarrera orokor gisa ikus honako liburuok: Victor Manuel Aguiar e Silva, *Teoría de la literatura*, Madril, Gredos, 1984; sarrera tradizional bezain ona. Terry Eagleton, *Literary Theory*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1983; eguneratua eta joera marxistakoa. D.W. Fokkema, eta Elrud Ibsch, *Teoría de la literatura del siglo XX: estructuralismo, marxismo, estética de la recepción, semiótica*, Cátedra, 1984; seguruaski estrukturalismora arteko kritika erarik zeharzenean deskribatzen duen historia. Frank Lentricchia, *After the New Criticism*, Chicago, The University of Chicago Press, 1980; postestrukturalismoaren eztabaida barneratzen duen lehen liburuetakoa, alabaina irakurleko amerikarrentzat idatzia. Jonathan Culler, *Structural Poetics: Structuralism, Linguistics and the Study of Literature*, Ithaca, New York, Cornell University Press, 1976; liburu zertxobait zaharkitua baina oraindik sarrera ona. René Wellek, *A History of Modern Criticism 1750-1950*, I-V, New Haven eta Londres, Yale University Press, 1965-; liburu bakarra bere generuan, literatur kritikaren enziklopedia dela esango nuke.

(4) Ingalaterran eta Estatu Batuetan mende hasieran bilakatu zen I. Mundu Gerrak eraginiko abertzaletasun edo patriotismo joeraren ondorioz.

tinguruan berauei zor zaie. Alabaina, erromantiko alemaniarren ekintza hau errotikakoa izan zen. Lacoue-Labarthe eta Nancy-ren liburuaren titulua, *L'absolue littéraire*, parafraseatuz zera esango genuke, erromantizismo alemaniarrak sortzen duela absolutuki bai literatura modernoa bere hartan bai eta beronen instituzionalizazio unibertsitaria: literatur kritika⁵. Asperturik gauden gehienetan elaberri bat irakurtzen dugunon bandoa oraindik ugaria den garai hauetan, zail da literatura norbaitek absolutuki sortu duenik ulertzea. Alabaina, literatura, guk ulertzen dugun bezala, modernitateak sortu du bere hastapenetan. XVIII. mendera arte “letra ederrak” edo “poesia” izendapenak ziren indarrean eta izendapen hauek barneratzen eta kanporatzen zituzten idazlanen multzoa erabat desberdina da “literatura” izendapen modernoak onartzen dituen idazlanen multzotik.

Atzeregi jo gabe, modernitatearen hastapenen zenbait zantzu emango ditugu has-teko. Immanuel Kant filosofoa kontsideratzen badugu garai klasiko edo ilustratuaren azken sintesi arrazionalistaren entseigile XVIII. mendean, bertan topatuko dugu literatur kritikaren sorrerarako abiapuntu egokia. Kanten hirugarren kritikan, *Erizpenaren kritika* delakoan⁶, geroko idealismo filosofiko erromantikoaren sorrera ikus dezakegu. Bertan, erizpen estetikoak da Kanten ardura. Kantek aurreko bere bi kritiken hutsunea kritika estetiko batek bakarrik bete ahalko zuela iradoki zuen. Bere diskurtsoaren oinarri ziren bi ideiek, subjektu eta objektu traszendentalak, sintesi bat behar zuten filosofia kantiarrari eusteko, sintesi honen ezintasunak eraikuntza filosofiko kantiar osoa kolokan jartzen baitzuen. Bada, sintesi hau erizpen estetikoak eman zeza-keela iradoki zuen Kantek. Hau da bere sublineari buruzko teoria. Beste hitz batzutan esateko, ardura estetiko batek hartzen du filosofia kantiarraren erdigunea.

Agian terminologia kantiar honek gauzak ilundu egingo zituelakoan, Descartes-en *cogito*-az hobe esplikatu genuke. Alegia, garai klasiko arrazionalista inauguratzen duen Descartes-en esaldiak, *cogito ergo sum*, kontzientzia absolutu bat inauguratu zuen. Kontzientzia honen arazoa, kanpoko mundua justifikatzea zen, mundu erreala bazela frogatzea, azken finean honek bakarrik bermatuko baitzukeen kontzientzia arrazional baten izatea mundu errealean. Descartesek, bere garaiari jarraikiz, Jainko baten beharra postulatu zuen lekuan kontzientzia eta errealtatearen artean zubi egiteko, Kantek tesi estetiko baten ideia postulatu zuen Jainko baten behar kartesiarrak deuseztatuz eta beraz filosofia desakralizatuz.

Filosofia Kantiarraren eraikuntzaren mugek berek sintesi estetikoak zertan zen bilakaraztea eragotzi zuten. Kanten ikasle zen Fichte-k filosofia kantiarrak eginiko kritika idealista eta gero, beste filosofo idealista bat, Friedrich Schelling, bakarrik izan zen gauza berriro ere sintesi honen beharra ikustatzeko. Schelling-ek 1803an idatzi zuen bere *Idealismo traszendentalaren sistema* idazlanean⁷, *ni*-a eta *natura* (subjektua eta objektua) esperientzia estetikoan batzen zirela postulatu zuen eta beraz arte lana izan behar zuela jakintza gorenaren forma. Beste hitzetan, filosofoak, jakintza orokor izatekotan, estetikoak bihurtu behar zuten Schellingentzat. Garai klasikoko filosofia oro-

(5) Philippe Lacoue-Labarthe & Jean-Luc Nancy, *L'Absolu littéraire. Théorie de la littérature du romantisme allemand*, Paris, Seuil, 1978.

(6) Immanuel Kant, *Critique of Judgment*, New York, Hafner Press, 1951.

(7) Friedrich Schelling, *System of Transcendental Idealism*, Charlottesville, University Press of Virginia, 1978. Ikus halaber *The Philosophy of Art*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1989.

ren arrazionaltasunari uko egiten jakin ezin izan zuenez, Schellingek ez zuen filoso-fiaren itzuli estetiko hau gauzatu. Oro har, filosofia gorabehera, guzti hauen gainetik zera interesatzen zaigu azpimarkatzea, alegia Kantez geroko filosofia idealista izan zela lehen estetikaren garrantzi zentrala pentsamendu europar klasikoan azpimar-katzen. Estetikaren zentraltasunaren aldarrikapen idealista filosofiko honek inaugu-ratzen du modernitatea⁸.

Eta hain zuzen, erromantizismo alemaniarra izan zen lehen filosofia idealistaren behar estetiko horri erantzuten eta diskurtsu ez-filosofiko berri baten ardatz bihurtzen. Erromantizismo alemaniarren ekintza honek ematen dio jaiotza bai literatura modernoari bai eta literatur kritikari ere. Schellingek ikaskide izan ziren Schlegel anaiak, Friedrich eta Wilhelm, eta hauen taldeak, Jenako zirkulua, izan ziren lehe-nak *Fragmentuak* deritzon diskurtsu berri bat sortzen⁹. Novalis ere zirkuluko partaide izan zela gogoraziko dugu bidenabar. *Fragmentuek* filosofia idealistaren kezka este-tikoa hartu zuten ardatz nagusizat eta era berean diskurtsu estetiko bihurtu. 1796 eta 1800 urteen artean idatzi ziren *Fragmentu* hauek izan ziren literatura modernoaren eta literatur kritikaren sorrerarik nagusienetakoa¹⁰. Jakina Schiller-en *Gizonaren bezkuntza sentimental*a eta sublimeaz idatzitako lanak¹¹ mementu honetara garamatza-ten beste pentsakera askoren artean kokatzen dira. Alegia, Schlegel anaiak pentsa-mendu zabal baten azken punta ikusgarriena baino ez dira.

Beraz zein dira *Fragmentuak* deritzon diskurtsu berri honen ekarpenik garrantzi-tsuenak? Lehenik Descartes-*ez* gero subjektu arrazionaltzat definitu zena, *Fragmen-tuek* estetikoki birdefinitu zuten. Subjektu modernoa ez da beraz *cogitans esteticus* bai-zik. Bigarrenik, subjektuaren esperientzia estetikoa, orduantxe sortzen ari zen forma estetiko berri batean itxura zitekeela baieztatu zuten *Fragmentuek*, hain zuzen elabe-rria. Nolabait *Fragmentuak* berak proto-elaberritzat kontsidera ditzakegu. Elaberriak generu moderno bezala literatur kritikan duen garrantzia dela medio, lehenik elabe-rrien sorrerari itzuli bat egingo diogu handik literatur kritikara bihurtzeko.

XIX. mende osoko esperientzia estetiko idatzia itxuratuko zuen literatur forma, elaberria, *Fragmentuek* lehen aldiz teorizatu zuten eta bere geroko bilakaerarako ildo-ak urratu. Ez dugu ahantzi behar mementu honetan Ingalaterran Laurence Sterne-k bere *Tristram Shandy*¹² (1759-67) argitaratu zuela. Frantzian Rousseau-k idatzi zuen lehen autobiografia itxurako liburua, bere *Aitorpenak* (1770), eta *Heloisa berria* (1761)¹³ (lehenak hil eta gero argitaratu baziren ere), eta Diderot-ek *Jacques fatalista* (1778)¹⁴ bezalako idazlanak. Alemanian, Goethek *Werther gaztearen kezkek* (1774) eta *Wilhelm Meister* (1777-85)¹⁵ argitaratu berriak zituen. Bestalde Errenazimentuko lan

(8) Hegel-ek aldarrikapen idealista irauli egin zuen geroago. Ikus "errealismoa" atala.

(9) Peter Firchow, *Friedrich Schlegel's Lucinde and the Fragments*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1971.

(10) René Wellek, Op. cit., II. *The Romantic Age*, 5-35. or.

(11) Friedrich Schiller, *On the Aesthetic Education of Man*, Oxford, Clarendon Press, 1967; *Naive and Sentimental Poetry, and On the Sublime; Two Essays*, New York, F. Ungar Pub. Co., 1967.

(12) Laurence Sterne, *The Life and Opinions of Tristram Shandy, Gentleman*, Oxford, New York, Oxford Univ. Press, 1983.

(13) Jean-Jacques Rousseau, *Les Confessions*, I-II, Paris, Gallimard, 1959; *Julie, ou, La nouvelle Héloïse*, Paris, Garnier, 1966.

(14) Diderot, *Jacques le fataliste*, Paris, Flammarion, 1980.

(15) J. W. von Goethe, *The Sorrows of Young Werther and Novella*, New York, Vintage Books, 1973; *Wilhelm Meister's Years of Apprenticeship*, London, Calder, 1977.

espainiarrak, *Kixote*-a buru, eta italiarrak orduantxe itzultzen hasiak ziren alemanieraz. Ingalaterran ere Horace Walpole-k orduantxe inauguratzen zuen *Orrantoko Gaztelua* (1764) deritzon liburuaz¹⁶ harrez gero “elaberri gotikoa” bezala ezagutu dena. Liburuaren sarrerako erasoia klasiszismo frantsesari eta Shakespeareren lehen aldarrikapen postklasikoa sintomatikoak dira zentzu honetan. Idazlan guztiok ez zuten garai klasikoko prezeptiba estetikoan leku aurrezarririk eta subjektibitate moderno baten lehen zantzuak ziren¹⁷. Schlegel anaiak erromantizismo alemaniarraren lehen belaunaldia ziren. Bigarren belaunaldia, egiazki erromantikoa, Kleist, Tieck, Hoffman, Arnim eta abar bertatik abiatu zen. Erromantizismo alemaniarrak ireki zuen hasiera moderno hau izan zen erromantizismo ingelesaren inspiratzaile teorikoa eta, Madame de Staël-en *De l'Allemagne* liburu ospetsuaren bidez, erromantizismo frantses eta italiarrena halaber¹⁸.

Erromantizismo alemaniarrak irekitzen duen lehen mementu honetatik elaberria hedatzen da Europan zehar forma literarioerik eragingarri eta erakargarriena bezala. Ingalaterran, elaberri klasiko ohiturazkoak errotikako eraldapena ezagutzen du elaberri gotikoaren tradizioari zor kitaezina dioen Walter Scott-en elaberri historikoan. Lukacs-ek elaberri historikoaz idatzitako lanean¹⁹ zioen bezala, Scott-ek mamitu zuen lehen subjektu modernoaren eredua, Lukacs-ek “heroi historikoa” deritzona. Frantzia ere, Balzac, Scottzale eta admiratzaile sutsua bera, bide ingelesari jarraiki zitzaion eta elaberri burges frantsesa gararazi, *Giza komedia* bezalako enziklopedia psikologiko itzelean²⁰. Lukacs-ek sintetizatu zuen formula motz batean literatur modernoak elaberrian ezagutzen duen hasiera: “Elaberria Jainkoak abandonatutako [modernitate] gizartearen epika da”²¹.

Erromantizismoak sortarazi zuen gogoeta estetiko honek, beraz, literatura moderno hasi zuen eta bidenabar literatur kritika. Egin dugun itzuli literario luze honen helburua zera izan da, literatur kritika literatur modernoarekin batera sortzen dela azpimarkatzea. Aipatu *Fragmentu*-etan, elaberria eta literatur kritika batera eman nahi izan ziren diskurtsu estetiko bakar bezala. *Fragmentu*-etatik abiatzen dira beraz biak, elaberri moderno eta literatur kritika, bi ihardun desberdin bihurtzeko. Literatur kritikari sorrera bat eman nahi badiogu, data bat ere badugu: Wilhelm Schlegel izan zen lehena unibertsitate alemaniarrean literaturari buruzko lehen hitzaldiak ematen. Hain sonatu bihurtu ziren bere 1809ko arte eta literatura dramatikozko hitzaldiak²² izan ziren literatur kritikazko lehen saioak historian, literatur kritikari eman diogun zentzu zehatz honetan. *Fragmentu*-etan idatzitakoari jarraikiz modernitatea eta literatura teorizatu zituen Schlegel-ek eta bakarrik harrez gero erakutsi da literatura unibertsitatean literatura bezala²³. Sarrera hau amaitzeko zera esan dezakegu beraz: erro-

(16) Horace Walpole, *The Castle of Otranto*, New York, Collier Books, 1963.

(17) Era berean ikus Wordsworth-en sarrera in Williams Wordsworth & Samuel Coleridge, *Lyrical Ballads*, Londres, Oxford University Press, 1969.

(18) Germaine de Staël, *De l'Allemagne*, I-II, Paris, Garnier-Flammarion, 1968.

(19) Georg Lukacs, *The Historical Novel*, Lincoln eta Londres, University of Nebraska Press, 1983.

(20) Honoré de Balzac, *La comédie humaine*, Paris, Gallimard, 1976-81.

(21) Georg Lukacs, *The Theory of the Novel*, Cambridge, Mass., The MIT Press, 1971, 88. or. Itzulpena neurea.

(22) August William Schlegel, *A Course of Lectures on Dramatic Art and Literature*, Londres, Henry G. Bohn, 1846; *Teoría e historia de las bellas artes*, Madril, La España Editorial, 1895.

(23) Ordura arte “literatur” greko-latindar klasikoa baino ez zen irakasten eta berau ez literatur kritikazko ikuspuntu batetik.

mantizismoak filosofia idealistari demaion itzuli estetikoaren ondorioz sortzen duela batera bai literatura modernoaren ideia, bai literatur kritikaren instituzioa.

3. Errealismoa. XIX. mendean zehar modernitatea hedatzen den bezala eta industrializazioa gizarte ekoizpen forma orokor bihurtzen delarik European, gizarte burgesak hiru instituziotan eraikitzen ditu bere gizarte oinarriak. Weber eta Habermas-en gogoetari jarraikiz zera esan liteke laburrean: Erdi Haroko gizarte teologikoa suntsitzen den heinean eta ilustrazioak irekitako programari jarraikiz XIX. mendeko gizarte burgesa, zientzia, moralak eta artearen instituzioetan finkatzen dela²⁴. Zientzia gizarte progresua ahalbidetzen duen erakunde gisa eratzen da, moralak lege eta arauzko erakunde politikoa bihurtzen da eta artea subjektu modernoari mundu ikuskera bat ziurtatzen dioten instituzioa suertatzen da. Erlijioak gizarte praktika hegemoniko izateari uzten dio eta filosofia bihurtzen da gizartea esplikatzen eta arautzen duen diskurtsu eta instituzio maisua. Hala arteak, eta literaturak gure kasuan, erakunde statusa bereganatzen du eta bidenabar beste gizarteko kultura alorreko autonomia. *Autonomia* kontzeptua bihurtzen da hemen giltzarri literatur kritikaren geroko norantza ulertzeko. Alegia, gizarte modernoak arteari eta literaturari ez Erdi Haroko gizarte teologikoa ezta garai klasikoko gizarte arrazionalistak eman ez zioten gizarte autonomia instituzionala bermatzen dio.

Autonomia honen ondorioz, literatura literatur kritika jakintzaren objektu bihurtzen da, hots unibertitatean aztergai bihurtzen den jakintza objektu berezia. XIX. mendean zehar eta XX.aren lehen erdialdean hedatzen den literatur kritikaren historia faktu honen inguruan eratzen da: autonomia bihurtu den gizarte objektu honi, literatura, diskurtsu zientifiko bat egokitzen zaio —literatur kritika. XIX. mendean bi korronte azpimarkatuko nituzke: erromantizismoaren ondorio diren kritika fenomenologiko hegeliarra (eta haren seme den kritika marxista) eta positibismoa.

Hegel-ek nolabait teoria erromantikoari akabantza ematen dio. Haren *Estetika*-n²⁵ azaltzen denez, literatura filosofiaren diskurtsu orokorrari makurtzen zaion gizarte ikuskera estetikoak da. Hala Hegel-en pentsakeran subjektua ez da estetikoak (erromantikoekin izan zen bezala) arrazionala baizik. Baina era berean subjektuak ikuskerak estetikoaren beharra du. Hegelek deskribatutako egoera bikoitz honek (ez-nagusia baina beharrezkoa) literaturari leku berezia (subordinatua eta autonomoa) egokitzen dio gizarte burgesaren egiturapean. Hegelen idealismoak Marxen kritikan bere itzuli materialista ezagutu bazuen ere, literatur kritika marxista estetika Hegeliarrari irmeki atxiki zitzaion. Bertatik abiatzen dira errealismoari buruzko doktrina guztiak.

XX. mendean Lukacs-en inguruan eratu zen literatur kritika marxista nagusia eredu estetiko hegeliar honen ondorio da²⁶. Bertold Brecht eta Walter Benjamin-ekin izan zituen eztabaidetan argi ikus daitekeenez²⁷, Lukacs-ek bere heriotzaraino errealismo sozialista deritzon errealismoa defendatu zuen aukera literario proletari eta ez proletari bakartzat²⁸. Marx eta Engels-ek lehenago azaldu zituzten kezka eta proble-

(24) Jürgen Habermas, "Modernity —An Incomplete Project" in Hal Foster (arg.), *The Anti-Aesthetic. Essays on Postmodern Culture*, Port Townsend, Washington, Bay Press, 1983. 3-15. or.

(25) G. W. F. Hegel, *Aesthetics*, I-II, New York, Oxford University Press.

(26) Zubi luze honetan Plekhanov bezalako kritikoak ezatabaidatu beharko genituzke deskribapen historiko zehatza emateko.

(27) Theodor Adorno et al., *Aesthetics and Politics*, Londres, Verso, 1980.

(28) Gyorgy Lukacs, *Essays on Realism*, Cambridge, Mass., MIT Press, 1981.

matika interesgarriagoak baztertuz²⁹, XIX. mendeko literatura errealista europearra, alegia literatura burgesa, hartu zuen eredutzat Lukacs-ek. Eredu honi ia gaurdaino eutsi zaio bloke komunista osoan, Txinan ezik beharbada. Azken finean Lukacsek, marxista hegeliar guztiak bezala, XIX. mende hasierako errealismoan finkatu zuen literatur objektuaren funtsa eta izana. Lukacsen aburuz, eta honetan bere ekarria zeharo hegeliarra da, literatura, eta zehazkiago elaberria, bere gizarte ingurune historikotik sortzen da eta ingurune hori isladatu behar du. Alegia, gizarte eta elaberri arteko erlazioak islada zuzenezkoak izan behar dute Lukacsentzat. Eta jakina, baldintza hau betetzen zuen literatura forma bakarra XIX. mendeko elaberri errealista izan zen. Walter Scott-engandik hasi eta Balzac-engan zehar Thomas Mann arte hedatzen zen elaberri errealista goraiatu zuen Lukacsek literatura objektibo bakartzat.

Idealismo hegeliarraren ondorio izan zen literatur kritika marxista honek, bloke komunistaren unibertitate guztiak bereganatu zituen eta indarrez hartu. Gertaera honek ondorio berezia izan zuen literatur kritika marxistan. Literaturaren izate objektiboa Lukacsek idoro zuenez, literaturaren bilakaera historikoa ukatu zuen paradoxikoki kritika marxistak, eta azkenik prezeptiboa eta axiologikoa bihurtu zen. Alegia, mendebalde ez-marxista osoan literatur kritikak izan ez zuen ezaugarria hartu zuen bloke marxistan: literatur kritika prezeptibo eta arauemaile bihurtu zen, nola idatzi behar zen aginduz eta ortodoxia honetatik saihesten ziren idazlanak kondenatuz. Beti ere mendebalde ez-marxistan, literatur kritikak izan duen analisi itxura instituzionala utziz, bloke marxistan literatur kritika instituzio politiko moralaren zati bihurtu zen, alderdi komunistaren egitura politikoa hartuz. Trotsky eta Lunacharsky 30eko hamarkadan literatur kritika ofizialetik kanpo geratu zirenean, 1932an egin zen idazle sozialista kongresu baten ondorioz eredu errealista sozialista aldarrikatu zen literatur objektibo bakartzat. Harrez gero Shdanov zeritzon kultur komisari estalinistak eredu prezeptibo honi eutsi zion gizarte komunistan. Jakina, literatur kritika marxistaren aldaketa hau Leninismotik Stalinismora gertatu zen aldaketaren ondorio izan zen. Gorbachev-en perestroikak literatur kritikan eraldaketarik sortu duen ez dakigu oraindik. Amaitzeko kritika marxistaren historia askoz luzeago eta zabalagoa bada ere, mendebaldeko marxismoak eman duen beste kritiko garrantzitsuena aipatu baino ez dugu egingo: Jean Paul Sartre³⁰. Eztabaida estrukturalista eta gero bere eragina desagertu egin da aurrerago aurkeztuko dugun kritiko marxistarengan, Fredrick Jameson, ezik apika.

Berriro ere XIX. mendera itzuliz, koka gaitzen lehen berezi dudana bigarren korronte kritikoa: kritika positibista. XIX. mendea bere amaiera arte itxuratu zuen beste joera epistemologikoak, positibismoa, literaturaren jakintza ere egituratu zuen. Seguru aski Frantzia gehien garatu zuen literatur kritika positibistak Hipolite Taine, Brunetièrre eta Lanson-engan ditu adierazgarriak onenak. Taine-k bere literatur ingelesaren historiaren sarreran azaltzen duenez³¹, literatur kritikaren xedea berorri objektu bezala sortarazten duten baldintza historikoen azterketa positiboa da. Bere aburuz, baldintza hauek hiru ziren: arraza, ingurunea eta mementua. Positibismoz mozortutako literatur kritika honen azpian, erromantizismoaren eragina nabarmen antze-

(29) Lee Baxandall & Stefan Morawski, (arg.), *Marx and Engels on Literature and Art*, St. Louis, Telos Press, 1973.

(30) Jean Paul Sartre, *Baudelaire*, Paris, Gallimard, 1947; *Qu'est-ce que la littérature?*, Paris, Gallimard, 1948.

(31) Hipolite Taine, *Histoire de la littérature anglaise*, Paris, Hachette, 1895.

man dezakegu. Alegia, arrazak, giroak eta historiak nazio bakoitzean sortarazten duten mundu ikuskera berezia jaso eta emateko gai diren subjektuak idazleak badira, Taine-rentzat literatur kritikaren helburua idazle horien ikuskera nazionala sortarazi duten baldintzen azterketa da. Nolabait Taine-k *volkegeist*-aren ideia erromantikoa du bere kritikaren oinarri ezkutu. Joera positibista honek ez du arrasto nabarmenik utzi XX. mendean. Amaitzeko beraz XIX. mendeko literatur kritika nolabait erromantizismoak inauguratu zuen paradigman barne bilakatzen dela esango genuke.

4. **Sinbolismoa, modernismoa, abangoardiak.** XIX. mendearen amaieran literatur kritikak eraldaketa orokorra ezagutzen du. Baina lehen egin bezala, literatur kritikaren bilakaera berri hau ulertzeko berriro ere XIX. mende amaierako literatur modernoaren beraren historiara itzuli beharko dugu lehenik, bertatik aldaketa hau uler dezagun. Literatur frantsesa abiapuntutzat hartzen badugu, seguru aski sinbolismoak poesian eta Flaubert-ek oro har elaberrian, aldaketa bat suposatzen dute XIX. mendeko literatura moderno errealista burgesean. Baudelaire eta Flaubert exenplutzat hartzen baditugu, zera ikus dezakegu, alegia, literatura deritzon gizarte instituzio burgesak errotikako aldaketa bat jasotzen duela. XIX. mendearen erdialdean: literatura honek, eta arteak oro har, subjektu burges modernoaren mundu ikuskera izateari uzten dio. Metafora espazial bat erabiliz zera esan dezakegu, literatura mundu ikuskera errealista bat ematetik urrundu eta literatura instituzioan bertan barneratzen dela, bere buruaren ikuskera eman nahiz. Ikus dezagun lehenik Flaubert.

Flaubert-en *Madame Bovary* (1856)³² oraindik errealistatzat kontsidera dezakegu. Haren hurrengo elaberria, *Salammbô* (1862) elaberri orientalista eta gero, *Hezkuntza sentimental* (1869)³³ da. Elaberriak idatzi nahi dituen eta emakume zahar batez maitemindurik dagoen gazte baten, Fredric Moreau, istorioa da. Gazte honek ezaugarriarik badu errealtatearekiko urrunketa da. Elaberriak zera kondatzen digu, behin ere fisikoki izan ez duen emakume batenganako gazte baten maitasun platonikoa. Nolabait objektu edo errealtate ausente baten elaberria da *Hezkuntza sentimental*. Kafkak oheburuko liburutzat izatea ezin da bestela esplikatu. Alabaina Flaubert-en azken elaberri bukatugabea, *Bouvard eta Pécuchet* (1874-1880)³⁴, errealtatearekiko urrunketaren paradigma bihurtzen da. Oraingo honetan, bi pertsonaik, Bouvard eta Pécuchet, notariatan lan egiten zuten kopiazailetakoak dira. Beren ofizioa beraz idatziz kopiatzea da. Bouvardek jarauntsi bat jasotzen du eta biak beren ametsa betetzera deliberatzen dira: jakintza bere osotasunean abarkatzea. Errealtatearen jakintza orokor bat izan nahiz liburuetara jotzen dute. Emakumeei uko egin eta baserri batera mutilzahar bizitza egitera erretiratzen dira. Bertan eta liburuak irakurri ahala, Bouvard eta Pécuchet-ek bereganatutako jakintza errealtatean baieztatu eta frogatu nahi duten bakoitzean, elaberriak ironikoki beren hondamena ospatzen du. Hondamen horrek beste jakintza arlo batera bultzatzen ditu heroiak, beste hondamen berri batek suntsipenezko mugimendu etengabe batetan barneratu arte. Jakintzaren alor guztietan barneratu ondoren, eta guztietan jakintza honek errealtatearekin zerikusirik ez duela hondamen askoren prezioz konturatu ondoren, elaberriaren amaieran bi pertsonaiak beren antzinako ofiziora itzultzen dira, kopiatzera. Alegia, autoreari hainbeste urte kostatu zitzaion lan honek, literatur jakintzaren eta errealtatearen ar-

(32) Gustave Flaubert, *Madame Bovary*, Paris, Flammarion, 1986.

(33) Gustave Flaubert, *L'éducation sentimentale*, Paris, Flammarion, 1980.

(34) Gustave Flaubert, *Bouvard et Pécuchet*, Paris, Flammarion, 1966.

teko dibortzio orokorra azpimarkatzen du. Pertsonaiak ez dira errealak zentzu modernoan, literaturatik errealitatera elaberriak egiten duen suntsipenezko mugimenduaren aitzakiak baino ez dira. Azkenean pertsonaiak zentzurik ez duen idazketara itzultzen dira, kopiaketara hain zuzen. Nolabait literaturaren zentzugabetasuna ospatzen du elaberriak azkenean. Idazketak liburu honetan, bere errealitatearekiko dibortzioa aldarrikatzen du. Literatura ihardun mekanikoa bihurtzen da: bere buruaren kopiaketa. Era berean Baudelaire-ren bilakaera *Gaitzaren loreak*-etik (1855-57) *Spleen-a Parisen*-era (1855-69)³⁵, Barbara Johnson-ek azpimarkatzen duenez³⁶, bera da. Errealitate burgesetik harantzago zeuden errealitate debekatu eta exotikoak aldarrikatu zituen Baudelaire gazteak, errealitatearekin erlaziorik ez zuten ipuin edo prosazko poesia autonomoak, idazketazko jokoak, idazten amaitu zituen bere egunak. Idazketa honen nihilismoa orokorra da.

Goiko bi adibide hauek literatura modernoaren errotikako aldaketa baten zeinu dira³⁷. Hitz gutxitan eta marxistei jarraikiz zera esango genuke, XIX. mende erdialdeko eta amaierako literatur modernoak gizarte kapitalista inperialistak ekarri zuen eraldaketa pairatu zuela: gizartearen arrazionalizazio burokratiko eta teknologikoa. Ondorioz gizarte industrialean, literatura subjektu burgesari mundu ikuskera ematen zion instituzio izatetik merkatu monopolistaren sareko lanbide bat gehiago izatera iragaten da. Eta, beraz, literatur lanak kontsumo-gai bat gehiago, besteen artean, bihurtzen dira. Literaturak bere funtzio instituzional modernoak galtzen du XIX. mende amaierako kapitalismo inperialistan, merkatuko legeetan barneratutako erosamentazko produktu gisa. Era berean mementu honetan masa kulturazko literatura, literatura herrikoaia, hasten da. Masa literatura honek literatura moderno burgesak galdutako gizarte hedapena bereganatzen du, literatura burgesaren kanonei ekidin eta literatura komertziala bihurtuz. Ondorioa, Peter Bürger-en liburu argigarriari jarraikiz³⁸, literatura modernoak bere buruagan hersten den iharduna bihurtzen dela da. Mementu honetan literatura auto-erreferentziala eta meta-literarioa bilakatzen da eta bere burua idazten eta berridazten hasten da. Beste hitz batzutan, literatura lengoai autonomoa suertatzen da eta lengoai hori problematizatzea bihurtzen du bere xede. Mementu honetan errealismoak bere krisia ezagutzen du eta literatura "modernismoa" zentzu zabal batean deritzon sartzeko. Modernismo honen emaitzak Kafka eta Joyce lirakeke XX. mendearen hasieran. Bürger-ek bere liburuan azaltzen duenez, modernismoaren ondotik datozen abangoardia historikoak literatura modernoaren azken zisne kantua lirakeke. Abangoardiak, bizitza kapitalistak sortarazten duen urrunketa eta profesionalizazioa errefusatu, berriro ere artea errealitatera itzulerazteko azken entseiu suertatzen dira. Abangoardien porrot historikoak literatura moderno hersten du eta arte moderno eritzi diogun instituzioaren amaiera dakar. Historiak beti ere egiten dituen banaketa artifizialeki horietako bat egingo bagenu, abangoardien amaia postmodernitatean barneratzen gaituela esango genuke.

Literatur modernoaren amaierari eginiko itzuli hau eta gero berriro ere literatur kritikara bihurtuz, literatura modernoaren amai honek literatur kritikaren XX. men-

(35) Barkamenak itzulpenaren baldarkeriatatik. Charles Baudelaire, *Les Fleurs du Mal*, Paris, J. Corti; *Petits poèmes en prose (Le Spleen de Paris)*, Paris, Garnier, 1962.

(36) Barbara Johnson, *The Critical Difference: Essays in the Contemporary Rhetoric of Reading*, Baltimore, The Johns Hopkins Univ. Press, 1981.

(37) Mallarmé eta Rimbaud-en bilakaera norantza berean irakur liteke.

(38) Peter Bürger, *Theory of the Avant-Garde*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1984.

deko bilakaera eta heriotza erakusten digu. Zentzu zabalean modernismoa eta abangoardiak bezala definitu ditugun literatur modernoaren bilakaerek, literatur kritikaren *formalismo* bezala definituko dugun joera azalerazten dute. Alegia, XX. mende hasieratik II. Mundu Gerra ostera arte hedatzen den literatur kritikak formalismoaren bidea hartzen du. Literatur kritikak bere buruagan hertsia den literatur lengoai autonomo horren objektibotasuna zertan datzan aztertzea bihurtzen du bere xedea. Literaturaren lengoai honek errealitatearekin erlazioa galdu duenez, beronen funtsaren azterketa eta zilegiztapena formaren kontzeptuan topatuko du literatur kritikak.

XIX. mendean E. A. Poe bera har dezakegu literatur kritika formalistaren aintzindari ez unibertsitarizat. Oraindik ere gustoz, bere pretentsioak eta injenuitatea direla medio, irakur litekeen Poeren gaztaroko artikulu kritiko batean "konposiziozko filosofia" (*The Philosophy of Composition*) deritzona³⁹, poema bat idazteko eredu zientifiko bat eman nahi du Poek. Alegia, Poerentzat poema on bat idaztea konposiziozko arazo zientifiko bat baino ez da. Honetako bere poema sonatua, Belea (*The Raven*) nola idatzi duen hamairu puntutan esplikatzeko du *a posteriori*. Poerentzat, erromantikoentzat ez bezala, literatur idazketa teknika formal batzuren erabilpen arrazionala bihurtzen da. Teknika hauek formalki zehatz erabiliz gero literatur "ona" sort liteke.

XIX. mende amaieran oraindik literatur kritika marxismo eta positibismozko era desberdinetan deliberatzen den artean, XX. mendearen hasieran, hiru literatur kritika desberdin sortzen ikusiko ditugu. Hirurak lehen definitu dugun formalismo izendapenean barneratuko ditugu: formalismo errusiarra, estilistika eta kritika berria edo *new criticism*. Hiru kritika joera hauon hedapen geografikoa eta azterketa teknikak desberdinak badira ere, beren xedea bera da: errealitate berezirik bizi den literatur idazlanaren deskribapen formalista zientifiko eta autonomoa. Hiru joera kritikoentzat literatur lana objektu autonomoa da, edozein errealitate edo testuinguru historikotatik kanpo azter daitheena. Hiru kritiken analisisiek objektu honen azken funtsa zientifikoki ebaztea dute helburu. Hiru literatur kritika korrante hauek eredu linguistikoa desberdinak erabiliko dituzte literaturaren hizkuntzaren forma aztertzeke eta beraz jitez linguistikoak dira historikoak edo politikoak baino. Ikus ditzagun hiru kritika hauek banan banan.

Estilistika⁴⁰, mundu germaniarrean eta erromanikoan hedatu zen literatur kritika da. Bere iturri epistemologikoak XIX. mendeko filologiatik eta fenomenologia alemaniarretik mailegatuak dira. Charles Bally Saussure-ren ikaslea salbuespen bat da zentzu honetan. Kritika honen ordezkari nagusienak Karl Vossler, Leo Spitzer, Damaso Alonso eta Benedetto Croce lirateke. Kritika honek autorearen *estiloan* zetzala literatur testuaren bereiztasuna azpimarkatu zuen eta estilo hau zertan zetzan formalki aztertzen saiatu ere. Eskuarki kritika hau joera eta jarrera subjektibista eta ia mistikoetara bilakatu zen⁴¹. Kritika honek oraindik ere jarraitzaile bakanik baditu ere mundu espainiarrean, eta bilakaera estrukturalista bat ezagutu badu ere Michel Riffaterre-rekin, hemeretzigarren mendeko mamut extingituztat kontsideratu izan da 60ko hamarkadaz gero.

(39) Edgar Allan Poe, *Essays and Reviews*, New York, N.Y., Viking Press, 13-25. or.

(40) Ikus, Pierre Guiraud, *La stylistique*, Paris, PUF, 1961; Tzvetan, Todorov, "Le études du style", *Poétique*, 1970, 2, 224-232. or.

(41) Ikus adibideentzat Dámaso Alonso, *Ensayos sobre poesía española*, Madril, Revista de Occidente, 1944, 104. or.

Kritika berria edo *new criticism*⁴² mundu anglosaxoian hedatu zen kritika formalista dugu. Bere aitapontekoak John C. Ransom, Allen Tate, Cleanth Brooks, Kenneth Burke eta T. S. Elliot bera genituzke. Eta aitaponteko diot ezen oraindik Estatu Batuetako zenbait argitalpen prestigiotsutan mende hasierako gentleman ingeles batek idatziak diruditen artikulua usu topatzen dira. Betidaniko kultura anglosaxoiaren joera enpirista eta antiteorikoak ahalbidetu zuen azken finean kritika berria. T. S. Eliot bezalako idazle modernista eragindunaren itzalak korrante kritika honek modernismo anglosaxoiarekin izan zuen lotura azpimarkatzen du. Kritika berriak erabilitako hizkuntzalari-tzazko ereduak pobrezia kritika hau sendoki bilakaraztea eragotzi zuen.

Alabaina, estilistika eta kritika berria egun indarrean ez badaude, orain azalduko dugun hirugarren literatur kritika korrantea II. Mundu Gerra ondoko literatur kritikaren oinarri da, alegia eskuarki formalismo errusiarraren deritzonaz ari naiz⁴³. Formalismo errusiarraren Moskuko Hizkuntzalaritza Zirkulua (1915) eta OPOJAZ (Hizkuntz Poetikozko Ikasketa Elkarte, 1916) zeritzen taldeen inguruan eratu zen eta, Sausure ezezaguna bazitzaie ere hastapenetan, Baudouin de Courtenay-k bilakaerazi zuen estrukturalismo antzeko batez baliatu ziren. Formalismo errusiarraren abantaila aurreko bi korranteekin, bere hizkuntzalaritzazko oinarria zen. Alegia, taldeko osatzaile gehienek hizkuntzalaritzako heziketa ona zuten eta hizkuntzalaritza ereduok literatur kritikan aplikatzen saiatu ziren. Bere partaide ezagunenak Moskuko Hizkuntzalaritza Zirkuluan, Buslaev, Vinokur, Roman Jakobson, Osip Brik eta Boris Tomashevsky ziren; OPOJAZ-en aldiz Victor Shklovsky, Boris Eichenbaum, S. I. Bernstein, Iuri Tynyanov eta V. Vinogradov ziren. Orduko futurismo errusiarrarekin, Mayakovsky-rekin batez ere, lotura handia zuten. Victor Erlich-ek titulu bereko liburua giltzarrian azaltzen duenez, geroago narratologia esango zaion analisi estrukturalisten oinarria berauek bilakarazi zuten. Jaiotzaz eta heriotzaz ari garenez, XX. mendeko literatur kritika formalismo errusiarraren alaba edo seme dela esan genezake. Formalismo errusiarraren, 1917ko iraultzaz gero, kritika ahistoriko eta burgestzat kontsideratu izan zen Lunacharsky kultur komisari komunistaren eta Trotskyren kritikak zirela medio batez ere⁴⁴. Azkenik, taldeak desegin egin behar izan zuen. Eichenbaum eta Shklovskyren azken orduko erreformulazio historizistagoak lehenik eta Jakobson eta Tynyanov-enak geroago kritika komunistaren aldera egin nahi izan bazuten ere beranduegi suertatu zen.

Badira beste bi pertsonai aurrekoen garaikide eta herikide, zuzenean formalismo errusiarrarekin loturarik ez badute ere, geroko literatur kritikan eragin handia izan dutenak, hain zuzen Vladimir Propp eta Mikhail Bakhtin⁴⁵. Nik, egun Bakhtin berriaren ari den indarra azpimarkatuko nuke eta bere historikotasun ez-formalista baina diskurtsiboaren gainean atentzioa deituko. Azkenik egun bada formalisten ja-

(42) Hazard Adams, *Critical Theory Since Plato*, San Diego, New York e.a., Harvourt Brace Jovanovich, 1971.

(43) Ikus sarrera gisa Victor Erlich, *Russian Formalism. History-Doctrine*, The Hague, Mouton 1969; K. Pomorska & L. Matejka, (arg.) *Readings in Russian Formalist Poetics*, Cambridge, MIT Press, 1971; Tzvetan Todorov (arg.), *Théorie de la littérature. Textes des formalistes russes*, Paris, Seuil, 1966.

(44) Anatoly V. Lunacharsky, *On Literature and Art*, Mosku, Progress Publishers, 1965; Leon Trotsky, *Literature and Revolution*, Ann Arbor, University of Michigan Press, 1960

(45) Mikhail M. Bakhtin, *The Dialogic Imagination: Four Essays*, Austin, University of Texas Press, 1981; *Problems of Dostoevsky's Poetics*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1984; *Rabelais and His World*, Cambridge, Mass., MIT, 1968.

rraitzaile bat estrukturalismoa eta semiotikaren eragina jaso eta literatur eta filme teoria garrantzitsuak bilakarazi dituen SESB-en: Iuri Lotman⁴⁶.

Alabaina, formalismo errusiarrean pertsonai giltzarria Roman Jakobson suertatu zen. Jakobson 1920an Prahara joan zen eta Prahako Hizkuntzalaritza Zirkuluan barneratu. Bere partaide ezagunenak Jan Mukarovsky, N. S. Trubetzkoj eta René Wellek dira. Mukarovskyk hizkuntzaren analisi semiotiko estrukturalista bilakarazi zuen⁴⁷. Berak, Saussurek legez, hiru instantzia berezi zituen komunikazio prozesu batean: igorlea, mezua eta jasotzailea. Hala, hizkuntzak hiru funtzio zituela berezi zuen komunikazio ihardunaren zein osatzailetan kokatzen zen arabera. Mezuan kokatzen zen hizkuntzaren funtzioari funtzio poetikoa deitu zion. Berregituraketa honen ondorioz literatur kritika beti ere semiotikarekiko erlazioan ulertu da harrez gero. Hau da, literatura ez da testu idatzia bakarrik komunikazio ihardun osoa (ihardun semiotikoa) baizik.

I. Mundu Gerrarekin batera, taldea desegin zen eta berriro ere Jakobsonek, alde egin zuen Estatu Batuetara. Bera izan zen, 1958an *Indiana University*-ko *Social Science Research Council*-aren estiloari buruzko ihardunaldietan literatura zientifikoki funtzio poetikoaren bidez defini zitekeela arrakastaz agertu zuena. Funtzio poetikoaren kontzeptua da literatur kritika modernoaren kontzepturik giltzarriena. Seguruaski bera da literatur kritika formalistaren lorpenik oinarrizkoena: literatura hizkuntz forma hutsaren bidez definitzen da lehen aldiz zientifikoki. Nolabait kontzeptu honek ireki zion II. Mundu Gerra ondoko literatur kritika estrukturalistari atea⁴⁸.

Jakobsonen eskuetan oraindik estrukturalismoa eta semiotika hizkuntz analisi teknika formalak baziren ere, Claude Lévi-Strauss antropologo frantsesaren eskuetan beste maila batera iragan zen. Lévi-Straussek Jakobsonen bidez jakin zuen estrukturalismoaren berri, eta hark ez bezala, frantsesak giza zientzien eredu epistemologiko unibertsala bere eskuetan zuela konturatu zen. Lévi-Straussen 1949ko lanaz gero seguruenik⁴⁹, estrukturalismoa giza zientzia guztien kezka bihurtu zen. Lévi-Straussek saldu nahi izan zuen ametsa giza zientzien harri filosofala izan zen. Alegia, Lévi-Straussen estrukturalismoak edozein giza fenomeno zientifikoki esplika zitekeela baieztatzen zion munduari⁵⁰. Jakina, Jakobsonen literaturaren teorizazio formalistak eta Lévi-Straussen estrukturalismoaren hedapen epistemologikoak II. Mundu Gerra osteko literatur kritika inauguratzen dute eta, nolabait, bere heriotza. Giza zientzia guztietan hedatu zen amets estrukturalista literatur kritikan ere barneratu zen eta, harrez gero, literatur kritikaren helburu bakarra bihurtu. Lévi-Straussek mitologia eta famili erlazioen eremuetan batez ere edozein giza eremu gramatika estrukturalista baten gisara zientifikoki esplika zitekeela frogatu bide zuenean, literatur kritika ere amets berari jarraiki zitzaion: forma edo egitura huts zen literatur objektu autonomo eta isolatuaren gramatika estrukturalista unibertsala eraikitzea.

(46) M. I. U. Lotman, *Analysis of the Poetic Text*, Ann Arbor, Mich., Ardis, 1976; *The Structure of the Artistic Text*, Ann Arbor, Mich., University of Michigan, 1977.

(47) Jan Mukarovsky, *Structure, Sign, and Function: Selected essays*, New Haven, Yale University Press, 1978.

(48) Roman Jakobson, *Language in Literature*, Cambridge, Mass., Belknap Press, 1987.

(49) Claude Lévi-Strauss, *Les structures élémentaires de la parenté*, Paris, La Haye, Mouton, 1967. Ikus halaber *Anthropologie structurale*, Paris, Plon, 1958.

(50) Ikus Lévi-Straussen eredu epistemologikoaren kritika gogor bat: Jacques Derrida, "La structure, le signe et le jeu dans le discours des sciences humaines" in *L'écriture et la différence*, Paris, Seuil, 1967, 409-428. or.

Jakina, lan eskerga honi konplimendu emateko aukera herri bakar batean gerta zitezkeen, ilustrazioaren jaioterrian hain zuen. Norbait aukeratzekotan literatur kritika estrukturalistaren aita, Roland Barthes izango genuke bera. 1965ean orduko literatur kritika unibertsitari hemeretziar establezituaren buru zen Raymon Picard-ekin borrokatu zen eta, buru zaharra destronaturik, estrukturalismoaren errege berriak hartu zuen haren koroa⁵¹. Hala 60.go hamarkadaren bigarren erdialdean literatur kritikak estrukturalismoaren proiektuari ekiten dio literaturaren gramatika unibertsal filosofalaren bila⁵². Saussure, estrukturalismo eta semiotika frantziarraren aita, birbalioztatu zen eta azkenik bloke komunistatik etorritako bi kritiko gaztek, Julia Kristeva eta Tzvetan Todorov, formalismo errusiarraren ekarria itzuli zuten frantsesera. Berriro ere literatur kritika estrukturalistak orduko literatur mugimendu frantses nagusienarekin zuen loturak bere indarra azpimarkatzen du. Hain zuzen, orduan indarrean zen elaberri korronteaz, *nouveau roman*-ez ari naiz (Robbe-Grillet, Natalie Sarrate, Beckett, Philip Sollers, e.a.). Estrukturalismo frantsesa osatu zuten kritikoen artean hurrengoak azpimarkatuko nituzke: Roland Barthes⁵³, Tzvetan Todorov⁵⁴, Julia Kristeva⁵⁵, Algirdas Julien Greimas⁵⁶, Claude Bremond⁵⁷ eta Gérard Genette⁵⁸. Estrukturalismoaren ihardun kritikoan aritu zirenak (Barthes, Kristeva...) *Tel Quel* aldizkariaren inguruan batu ziren. Marxismoa ere bilakaera estrukturalistari batu zitzaion batasun berri bat sortu nahiz. Bi entseiu dira aipagarriak. Alde batetik Lukacs-en jarraitzaile zen Lucien Goldmann-ek estrukturalismoaren eta marxismoaren arteko lehen entseiu kritikoa egin zuen, estrukturalismo genetikoa eritzi zaiona⁵⁹. Geroago Althusser filosofo marxistak bigarren jira estrukturalista eman zion marxismoari eta batasun berri honen ondorioz marxismo estrukturalistak beste emaitza bat eman zuen Pierre Machérey-ren lanean⁶⁰. Geroago italiarrak batu zitzaizkion estrukturalismoari, Umberto Eco⁶¹, Cesare Segre⁶² e.a. Hauek Bolognako unibertsitatearen inguruan elkartu ziren.

(51) Eztabaida honen alderdi estrukturalista Barthes-en liburuan irakur liteke: Roland Barthes, *Critique et vérité*, Paris, Seuil, 1966.

(52) Garaiko eztabaida estrukturalista zentzu zabalean —epistemologikoa— ulertzeko ikus Vincent Descombes, *Le même et l'autre: quarante-cinq ans de philosophie française (1933-1978)*, Paris, Minuit, 1979 eta Richard Macksey & Eugenio Donato, (arg.), *The Structuralist Controversy: The Languages of Criticism and the Sciences of Man*, Baltimore, The Johns Hopkins University Press, 1972. Literatur kritikaren alorrean ikus Culler 1975. Estrukturalismoaren eztabaida marxista baterako ikus Fredric Jameson, *The Prison-House of Language*, Princeton, New Jersey, 1972.

(53) Bere lana *S/Z* liburura arte estrukturalista kontsidera daiteke. Ikus *Sur Racine*, Paris, Seuil, 1965; *Elements of Semiology*, Londres, Cape, 1967; *Système de la mode*, Paris, Seuil, 1967.

(54) Tzvetan Todorov, *Grammaire du Décaméron*, La Haye, Mouton, 1969; *Poétique de la prose*, Paris, Seuil, 1971; Oswald Ducrot-ekin, (arg.), *Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage*, Paris, Seuil, 1972.

(55) Julia Kristeva, *Sémiotiké: recherches pour un sémanalyse*, Paris, Seuil, 1969; *Le texte du roman: approche sémiologique d'une structure discursive transformationnelle*, La Haye, Mouton, 1970; *La révolution du langage poétique: l'avant-garde à la fin de XIX siècle, Lautremont et Mallarmé*, Paris, Seuil, 1974.

(56) Algirdas Julien Greimas, *Sémantique structurale, recherche de méthode*, Paris, Larousse, 1966; *Du sens; essais sémiotiques*, Paris, Seuil 1973-1983; Joshep Courtes-ekin, *Sémiotique; dictionnaire raisonné de la théorie du langage*, Paris, Hachette, 1979.

(57) Claude Bremond, *Logique du récit*, Paris, Seuil, 1973.

(58) Gérard Genette, *Figures: essais*, Paris, Seuil, 1966; *Figures II; essais*, Paris, Seuil, 1969.

(59) Lucien Goldmann, *Le dieu caché*, Paris, Gallimard, 1955; *Pour une sociologie du roman*, Paris, Gallimard, 1964.

(60) Pierre Machérey, *Pour une théorie de la production littéraire*, Paris, Maspero, 1966.

(61) Umberto Eco, *La estructura ausente; introducción a la semiótica*, Barcelona, Lumen, 1973; *A Theory of Semiotics*, Bloomington, Indiana University Press, 1976.

(62) Cesare Segre, *Semiotics and Literary Criticism*, The Hague, Mouton, 1973.

Seguruaski 60. go hamarkadan hedatzen den kritika honek, sekula literatur kritika modernoa eman duen ekoizpenik zabalena eta aberatsena eman du. Literatur kritika estrukturalistaz gero kritika ez da bera eta ezin da berauk aipatu gabe kritikarik egin. *Tel Quel* taldeak Julia Kristeva-ren alde egin zuen apostu berak azken sintesi kritikoa lor zezan. Oraindik 1972an Barthesek idatzitako artikulu batean bere alde egin zuen⁶³. Barthes eta Kristeva partaide ziren *Tel Quel*-en sintesi kritikoa amestua zera zen: estrukturalismoaren barnean, modernitateak eman dituen beste bi eredu epistemologiko nagusiak barneratzea, marxismoa eta psikoanalisi hain zuzen, bertatik edozein testu analizatzeko gramatika unibertuala sortu asmoz. Kristevak bi saio desberdin egin zituen *Sémiotiké* eta *Révolution du langage poétique*⁶⁴. Nolabait Europa guztia mugimendu honi begira egon zen 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hasieran.

5. **Postestrukturalismoa, heriotza.** Ekintza garrantzitsu bat gertatu zen estrukturalismoaren ametsa pikutara bota zuena: 1968ko maiatzeko iraultza. Giza zientziak, eta literatur kritika gure kasuan, jakintza orokor estrukturalista eraikitzen ari zirelarik mundua irauli asmoz, iraultza hori bera bapatean suertatu zen abisurik gabe. Iraultza honek utzi zuen ikasbiderik garbiena zera da, jakintza eta boterea mendealdean beti bat izan direla, txanpon beraren bi alderdiak bailira azaltzen direla, hain zuzen. Hala estrukturalismoaren amaierarekin batera zenbait idazle azaltzen dira, Frantzia batez ere, jakintza-botere batasun hau salatzen dutenak, eta azken finean, estrukturalismoaren ihardun eta helburua halaber. Gehienbat filosofoak dira, eta postestrukturalismo⁶⁵ izenpean bateraturik ezagutu izan dira. Postestrukturalismoaren salaketa nagusia zera da, jakintza orokor baten eraikuntzak, hala nola estrukturalismoa eta, beraz, literatur kritika estrukturalista, botere egitura orokor baten eraikuntza dakarrela berarekin, biak elkarrekin subjektu modernoa askatu beharrean gehiago gatibatzen dutelarik. Nolabait proiektu moderno osoaren salaketa da postestrukturalismoa: modernitatea askabide izan beharrean menderabide suertatu da.

Postestrukturalismoaren autore garrantzitsuenak Derrida⁶⁶, Foucault⁶⁷, Barthes⁶⁸, Lyotard⁶⁹, Baudrillard⁷⁰, Deleuze⁷¹, eta Lacan⁷² izango lirake⁷³. Autore guzti hauek helburu bera dute nolabait: gizarte kapitalistan boterea, jakintza eta desira (boterea-

(63) Roland Barthes, "Texte (théorie du)", *Encyclopaedia Universalis*, xv. lib., Paris, 1968-75, 1013-17.

(64) Op. cit.

(65) Ikus Vincent Descombes, Op. cit., Josue V. Harari, (arg.), *Textual Strategies: Perspectives in Post-Structuralist Criticism*, Ithaca, N.Y., Cornell University Press, 1979. Peter Dews, *Logics of Disintegration. Post-Structuralist Thought and the Claims of Critical Theory*, London, Verso, 1987.

(66) Jacques Derrida, *De la grammatologie*, Paris, Seuil, 1967.

(67) Michel Foucault, *Archéologie du savoir*, Paris, Gallimard, 1969; *Surveiller et punir: naissance de la prison*, Paris, Gallimard, 1975.

(68) Barthes *S/Z*, Paris, Seuil, 1970; *Le plaisir du texte*, Paris, Seuil, 1973.

(69) Jean-François Lyotard, *Dérive à partir de Marx et Freud*, Paris, UGE, 1973; *Des dispositifs pulsionnels*, Paris, UGE, 1973; *Économie libidinale*, Paris, Minuit, 1974.

(70) Jean Baudrillard, *Pour une critique de l'économie politique du signe*, Paris, Gallimard, 1972; *Le miroir de la production; ou, l'illusion critique du matérialisme historique*, Tournail, Casterman, 1973.

(71) Gilles Deleuze & Félix Guattari, *Capitalisme et schizophrénie. I. L'anti-Oedipe*, Paris, Minuit, 1972.

(72) Jacques Lacan, *Écrits*, Paris, Seuil, 1966; *The Four Fundamental Concepts of Psycho-analysis*, Londres, Hogarth Press, 1977.

(73) Postestrukturalismoak bere jarraipen amerikar marxista ezagutu du. Ikus Fredric Jameson, *The Political Unconscious. Narrative as a Socially Symbolic Act*, Ithaca, New York, Cornell University Press, 1981.

ren eta jakintzaren artikulatzailea) nola elkar-egituratzen diren aztertu eta kritikatu. Hurrengo sailean azalduko ditugun “teoria kritikoak” neurri handi batean postestrukturalismotik abiatzen dira. Derridaren terminologia erabiltzekotan, postestrukturalismoa jakintza modernoaren dekonstrukzio edo kritika azken eta zorrotzena da, postestrukturalismoa bera nolabait jakintza honen barnean geratzen bada ere salaketa-jakintza gisa. Bertatik dator postestrukturalismoaren izaera nihilista.

Garrantzitsuena azpimarkatzeko zera da, Bibliako Babelgo pasadizuaren antzera, estrukturalismo frantsesarekin literatur kritikak bere objektu propioa zientifikoki aztertzeko biderik zolienak garatu zituen mementuan ihardun estrukturalista osoa barreiatu egin zela eta literatur kritikaren xede zientifikoak bere zentzua galdu. Oraindik Greimas-ek edo Gilbert Durand-ek⁷⁴ narrazioen eta sinboloen gramatika orokorra eraikitzeari etsi ez badiote ere alkimista zaharren gisara, 1968 urteaz gero seguruenik literatur kritikak galdu egin zuen bere helburua eta hurrengo sailean azalduko dugunez, bere objektua —literatura modernoa. Beste hitz batzutan esateko, belaunaldi harrigarri hartako kritikoek, oraindik arrazoiak garbi izango ez badira ere guretzat hurrengo hitzaldira arte, literaturaz idazteari utzi egin zioten. Nolabait 1968.go maiatzeko iraultzaz gero, literatur kritikak bere heriotza ezagutzen du. Oraingoz faktua bezala emango dugu eta data hau azpimarkatuko. Heriotza honen arrazoiak ulertzeko, lehenik modernitatea amaitzeak, postmodernitatea hedatzeak e.a. zer esan nahi duen adierazi beharko dugu eta, zentzu hestuego batetan, berriro ere literatur modernoaren heriotza esplikatuko bertatik literatur kritikaren amaia ulertzeko. Eta hain zuzen, hori da ene hurrengo eguneko hitzaldiaren xedea.

II. Teoria kritikoak. Berauon arkeologia bat. Bigarren hitzaldia.

1. **Postmodernitatea.** Gaurko hitzaldia beraz lehengo egunekoaren jarraipen izango da. Han aldarrikatzen eta esplikatzen ez gauen literatur kritikaren heriotzaren arrazoiak azaltzen saiatuko gara hemen. Baina honetako beste itzuli handi bat egin beharko dugu lehenik. Itzuli hau modernitatearen amaieraren eta postmodernitatearen azalpenaren inguruan kokatuko da. Azkenik literatur modernoaren eta, beraz, literaturaren beraren heriotza ulertzeko gai izango gara eta literatura postmodernok —pluralean— goraka egitearen fenomenua zertan den ikuskatuko dugu. Bertatik literatur kritika, bere modernotasunean, nola eta zergatik desagertu den ulertu ahalko dugu eta nik atera dudan termino berri honek “teoria kritikoak” zer dakarren ordez ikusiko. Gainera sekula ez saio hoberik postmodernitateaz mintzatzeko modernitatearen jaiotzaren 200. urtemugan baino.

Postmodernitatea berbaren asmakizuna, amerikarra da eta arkitekturatik dator. Zenbait aipamen goiztiar bakan alde batera utzita, Charles Jencks arkitektoak sagaratu zuen⁷⁵. Geroago Alain Touraine⁷⁶ edo Daniel Bell⁷⁷ bezalako soziologoek beste

(74) Gilbert Durand, *Les structures anthropologiques de l'imaginaire; introduction à l'archéologie générale*, Paris, Bordas, 1969.

(75) Charles Jencks, *The Language of Post-Modern Architecture*, New York, Rizzoli, 1977.

(76) Alain Touraine, *La société post-industrielle*, Paris, Danöel, 1969.

(77) Daniel Bell, *The Coming of Post-Industrial Society: A Venture in Social Forecasting*, New York, Basic Books, 1973.

berba parekide bat sortu zuten: *gizarte postindustrialak*. Kontzeptuak badirudi funtsik baduela izan ere, marxistek beren terminologia propioa asmatu dute fenomeno bera marxistakiro esplikatzeko: kapitalismo berantiarra. Ernest Mandel-en⁷⁸ lana argigarria gertatzen da gizarte postindustrial edo kapitalismo berantiar hau deskribatzeko. Alabaina, honetan ere frantses batek, Monsieur Jean François Lyotard-ek, eman du oraindik ere baliagarrien suertatzen den esplikazio maisua, eta behingoz, liburu labur batean zeinetan ez baita galtzekorik. Beronen izena *La condition postmoderne*⁷⁹.

Beraz Lyotard-en definizioari atxekiko gatzazkio eta gero esplikatu. Honen definizioari jarraikiz, kultura postmodernitatean sartzen da gizarteak ekonomi postindustrial batera bilakatzen direnean. Ekonomia postindustrialerako bilakaera, industrian edo bigarren arloan oinarritutako gizarte ekonomia zerbitzuetan edo hirugarren arloan oinarritutako ekonomia bihurtzen denean gertatzen da. Mementu honetan kultura gainegiturazko fenomeno izatetik ekonomia mugitzen duen oinarritzko teknologia izatera iragaten da (teknologia informatikoa, telekomunikabideak e.a.). Nolabait esateko kultura bihurtzen da oinarritzko ekoizpen eta kontsumo produktu. Jakina, teoria honek gainegitura-oinegitura dotrina marxista klasikoa iraultzen du. Aldaketa ekonomiko honek, beraz, kultura postmodernitatean barneratzen du. Egun, dudarik gabe, gizarte amerikarra eta japoniarra kultura postmodernoan bizi dira, Europa oro har oraintxe barneratzen ari delarik. 1992. urtea dirudi datarik zehatzena edo sinbolikoena behintzat Europaren kasuan.

Beti ere Lyotard-i jarraikiz, deskribapen ekonomista honek ondorio orokor bat dakar kulturari. Lehenik ondorio hau bere terminologian emango dugu eta ondoren esplikatu. Postmodernitatearen ondorio orokorra zera da: metadiskurtsuenganako sinesgabetsuna. Lehenik, metadiskurtsu zer den esplika dezagun. Metadiskurtsua, edo ingelesez itzuli den bezala narrazio nagusia (*master narrative*), gizarte bateko eraketa ekonomiko-politikoa itxuratzen eta zilegiztatzen duen diskurtsu nagusia da. Hala gizarte burges modernoak, ilustrazioak zabaldu zuen progresu, egia eta bake unibertsalaren metadiskurtsuaren bidez zilegiztatu zen. Nolabait esateko, gizarte burges modernoak, zientzian, politika (eta moral) demokratikoan eta artean bere gizarte egitura oinarriturik, gizabanako guztiei gizarte egitura honek progresoa eta bakea ekarriko ziela sinestarazi behar izan zien eta sinesmen honen bidez iraun aurreko aintzin erregimenaren metadiskurtsu teologikoa deuseztatuz. Metadiskurtsu modernoak beraz, gizarte modernoak bere burua zilegiztatzeko behar izan zuen diskurtsu nagusi edo ideologikoa zen. Diskurtsu hau gizabanako subjektuei zuzentzen zitzairen eta zientzia edo arrazoia zuen eredu. Metadiskurtsu modernoak eratzeko ardura batez ere filosofia deritzon instituzio modernoak izan zuten: jakintzaren jabe zen elite instituzional batek kontrolatzen eta hedatzen zuen metadiskurtsu modernoak. Metadiskurtu filosofikoaren funtzioa, beraz, ez zen ekonomikoa ideologikoa baizik. Filosofiak ez zuen ekonomiaren funtzionamenduan parte zuzenik hartzen. Alabaina, gizarte postmodernoetan, kultura orokorki merkatu-gai bihurtu denean, ez da metadiskurtsu beharrik. Kultura osoa ekoizpenaren eta kontsumoaren legeetara makur-

(78) Ernest Mandel, *Late Capitalism*, London, NBL; Atlantic Highlands, N.J., Humanities Press, 1974.

(79) Jean François Lyotard, *La condition postmoderne: rapport sur le savoir*, Paris, Minuit, 1979. Ikus halaber *Instructions païennes*, Paris, Galilée, 1977; *Le postmoderne expliqué aux enfants: correspondance 1982-1985*, Paris, Galilée, 1986.

tzen delarik, ez du bere burua zilegiztatu beharrik, baizik eta ekoitzi eta kontsumatu. Kultura postmodernoan efikaziak eta performatibitateak neurtzen eta balioztatzen du ezein kultur-gai, ez metadiskurtsu batekiko adostasun ideologikoak. Kulturaren baliagarritasuna ez da ideologikoa garai modernoan bezala, ekonomikoa baizik. Beraz erizpide ekonomiko-teknologikoen (efikazia eta performatibitatea) hartzen dute metadiskurtsu filosofiko modernoaren lekua. Nolabait esatekotan, modernitateak zientzia eta arrazionaltasuna hartu bazituen metadiskurtsu filosofikoa eratzeko, berauon hedapen unibertsalak modernitatearen amaiera ekarri du. Postmodernitatea hiper-modernitate antzeko bat dela esan genezake.

Hontaz, postmodernitateak gizarte modernoaren instituzioen berregituraketa orokorra dakar. Oraindik zertan amaituko den ondo ez dakigu. Alabaina, eta guri dagokigunez, bi faktu azpimarkatu behar ditugu: lehenik, zientzia eta teknologiaren ereduak arrazionaltasuna (filosofia) izateari utzi dio merkatu efikazia eta performatibitatea bihurtzeko; bigarrenik, eta ondorioz, gizarte postmodernoen metadiskurtsuenganako sinesgabetasuna sortu dute. Geroago aztertuko dugu honek literatur kritikarekin duen erlazioa.

Bada, ordea, beste alderdi garrantzitsu bat, subjektuarena alegia. Eta honetan Lyotard ez da sartu eta aitzitik arazoa hemen datzala ere ez da konturatu, edo ez du konturatu nahi izan, zeren bera filosofoa den aldetik, subjektu modernoaren haragiztapen bete da. Subjektuaren arazoa nioen eta zera esan nahi nuen: zer gertatu da subjektu modernoarekin, hots, gizabanako, eskubide unibertsalen jabe eta arrazional den subjektu modernoarekin? Ikusi dugu gizarte modernoak bere hiru instituzioen bidez subjektu moeta bat sortu zuela, adibidez Erdiaroko subjektu teologikotik desberdindua, berau beste instituzio batzuek eratzen baitzuten: eleiza, erregetzak e.a. Esan bezala subjektu modernoak, zientziak eta filosofiak bermatzen zuten subjektu arrazional eta historikoa zen, morala eta politikak gizabanako eta unibertsal bezala eratua eta arteak sentimendu eta plazerezko mundu baten aukera utopikoa ematen ziona. Bada, postmodernitateak instituzio modernoak eraldatzerakoan subjektu modernoak ere eraldatu du eta beste subjektibitate forma bat edo batzu azalerazi. Azalerazte honen bidez, gizarte modernoak zilegiztatzen zuen subjektua historikoki zer izan den ikustarazi digute gizarte postmodernoen. Hau da, subjektu modernoak, lehen munduko subjektua zela lehenik ikusi da. Alegia, Europa eta Ifar Amerikatik at bizi diren gizabanakoak subjektu modernoaren eremutik kanpo geratzen ziren. Antropologia jakintza modernoak beste subjektu hauek salbai ez-arrazional gisa deskribatu ditu, berauon esplotazio ekonomikoari bidea zabalduz. Era berean, subjektu modernoak gizonezkoa izan da. Arrazionalitatearen jabe zen gizabanako ilustratua beti ere gizonezkoa izan da, inoiz ez emakumezkoa, eta emakumezkoa izan denean emakumeen borroka erasokoiaren ondorio izan da gizonezkoen nahiaren kontrara. XIX. mendeko emakumezko literatur idazleen (Brönte aizpak, George Sand....) gizarte anonimia edo transbestismoa lekuko garbi dira. Subjektu modernoak beti ere klase ertainekoa izan da, eta bere azpitik geratzen zen proletalgoa edo bestelako klase marginalak ez dira inoiz subjektu modernotzat onartu bere zentzu zehatzean. XIX. mendean zehar proletalgoak eramandako borroka guztiak lekuko bortitz dira marxismoak erakutsi legez. Subjektu modernoak era berean beti heterosexuala izan da eta familia nuklear bateko aita, edo beste hitzetan esateko, subjektu modernoak patriarkala izan da. Homosexualak, lesbianak, eta bestelako "perbertsoak" (Freud-en hitza dara-

bilt)⁸⁰ ez dira subjektu modernoaren kategorian sartu. Oraintsu bakarrik eta AIDS-aren fenomenuarekin onartu dira subjektu homosexualak gizarte partaide ikusgarri (literalki gizartean present) bezala, beti ere onarpena estigmatizazioaren prezioaz pagatu izan bada ere. Azkenik, subjektu moderno beti ere arrazionala izan da eta erotasunak markatzen duen gizarte mugatik harantzago geratzen ziren gizabanako guztiak erotxeetan barneratuz eta beraz gizartetik kanpo utziz baztertu dira erotasuna gizarteak sor dezakeenik kuestionatu gabe.

Oraindik zerrenda luzeagoa egin baliteke ere, postmodernitateak subjektu modernoaren eite edo itxura historiko konkretu hau ikusarazi digu. Eta ikusarazi hain zuzen, postmodernitatean, modernitateak baztertutako subjektibitate era ez-moderno guzti horiek, subjektibitate postmoderno bezala azalerazi direlako hein desberdinetan. Subjektu postmoderno baina, subjektu postmodernoak ditugu. Izan ere, kulturaren ekonomizazioak ez du subjektu era berezirik, moderno bezalakoa, zilegiztatu beharrik, baizik eta kontsumatzaile gai bihurtzeko gauza den heinean onartu egiten du, sortzen den heterogeneitatea indiferentziaz begiztatuz. Adibideak ugari dira. Frantzia mementu honetan arraza arazo handia dago zuri eta arabiarren artean. Jaiotze pertzentaiak aldatzen ez badira, ordea, urte gutxitan kultura frantsesak bere "arabiarasuna" onartu beharko du merkatu-legeen puruz, nolabait Andaluzia berri bat bihurtuz. Beste adibide bat 60ko eta 70eko hamarkadetako gazte kontestazioa izan da, hots, hippietatik punketara hedatzen den espektroa. Marginalizat beren buroak aldarrikatu zituztenen kultura hauek banan-banan gizartean barneratu izan dira normalizaziora iritsiz, eta arrazoia musikak azken hoge urteetan sortarazitako multinazional industria izan da. Bestalde musika klasikoa, XIX. mendean musika forma hegemonikoa, bigarren mailara iragan da, XX. mendeko musika klasikoa erabat marginala bihurtuz. Arrazoia bere ez-komertzialtasuna da jakina. Gaur egun musika klasikoa XIX. mendeko errentetatik bizi da. Beste adibide bat argitaletxeena da. Argitaletxeek orain urte gutxi idoro dute emakumea gizonetako bezain subjektu saltzaile eta erosle ona dela eta II. Mundu Gerra osteko literatura femeninoaren booma honen lekuko baino ez dugu.

Adibide zehatz bat aztertzekotan zinera joko nuke, Pedro Almodovar-en zinegintzara. Almodovar da dudarik gabe Espainian dugun zuzendari berri ezagun eta arrakastatsuenetakoa. Bere filmeen alderdi teknikoa onegia ez bada ere, hau da, zinearen standard teknikoetan at geratzen bada ere, arrakasta komertzial handia lortu zuen, batez ere bere *La ley del deseo*-z gero. Bertan bi mutil gayren (subjektu ez-modernoak) maitasunezko istorio hyper-erromantikoa kontatzen zaigu Jacques Brell-en *Ne me quite pas* kantua eta guzti. Tropo erromantikoak banan-banan betetzen dira. Filme honen pertsonaiak bikote heterosexual bat izan balira, 1930eko hamarkadako Hollywood-eko filme zaharkitu baten aurrean egongo ginatkeen, esajeratua motibo guztietan baina Hollywood estilokoa. Beharbada zehazkiago Hollywood-ek 50 eta 60ko hamarkadetan ezagutu zuen berrinterpretazio espainiarraren estilokoa genuke. Istorio hain zaharra pertsonai ez-moderno batzutura aldatzean, aldiz, efektu bikoitza lortzen du filmeak. Batetik filmeak tinte komiko benetan zoragarria hartzen du istorio modernoaren eta subjektu ez-modernoaren artean sortzen den desplazamendua ezin sinetsi daitekeelako; nolabait filmeak istorioaren sinesgarritasuna erabat jaten du.

(80) Sigmund Freud, *Three Essays on Sexuality*, New York, Basic Books, 1962, 26. or.

Bestetik, istorio erromantiko topikoa filme modernoetan azaltzen ez ziren bi subjektutara aldatzeak istorioa berriro ere ikusgarria (zentzu literalean) izatea ahalbidetzen du. Alegia, entzulegoaren gehiengoa hunkitu zuen filme honek. Filmearen izate bikoitz honek, sinestezina eta unkigarria, efektu zeharo postmodernoak du. Ikuslegoaren gehiengoa heterosexuala dela onarturik, filmeak subjektu heterosexual modernoarekiko identifikazio tipikoa blokeatu egiten du. Ikuslegoak ezin du subjektu homosexual batekin identifikatu, subjektu bera bailira: ez da beraz sinesgarritasunik. Baina era berean unkiberatasuna dela medio, filmeak ikuslegoa subjektu ez moderno bat onartzea eta hartaz unkitzea lortzen du. Subjektu homosexualaren *bestetasuna* aldarrikatzen du filme honek. Eta hain zuzen, beste filme homosexual serioen kontrara, adibidez Fassbinder-en *Querelle*, arrakasta handia lortu du, zeren komertzialki pentsatua izan da (bertatik bere Hollywood itxura). Ondorioa zera da, merkatuak ez diola oztoporik jarri filme homosexual ez-moderno bati komertziala izan den heinean. Almodovar-en filme guztiak, azkena ezik, subjektu ez modernotan kokatu dira. John Waters, zeinak Almodovarrengan eragin handia izan duen, Hollywood-ek azkenean onartzea era berean ulertzen da. Hurbilago etorri azken adibidetzat Kortatu musika taldea aipatuko nuke. Euskalerrian etorkinen kulturak eraginik izan ez duelarik, Kortatu bezalako talde marginal baten arrakasta musika punk komertziala eta Euskalerriko gaiak konbinatzeko gaitasun postmoderno honetan datzala defendatuko nuke.

Beraz, eta gure arlora hurbil gaitezen, goian aipatu bi fenomenuek bateratu eta laburtuko ditugu: postmodernitatean metadiskurtsuenganako sinesgabetasuna eta subjektu modernoaren barreiaketa txanpon beraren bi aldeak bezala gertatu dira. Er-lazioa zera da, gizarte postmodernok ez dutela subjektu moeta berezirik zilegiztatu behar metadiskurtsu baten bidez. Edozein subjektibitate moeta onartzen dute, merkatuaren legetan barnera litekeen heinean. Deleuze eta Guattari azaldu dutenez, kapitalismo postindustrialak makina eskizoidea da; edozer bereganatzeko gauza da, bereganaketa honek bere zabalpen ekonomikoa ziurtatzen badu. Makina honek ez du bestelako erizpiderik, ez zentzurik, eta beraz zatika eta norantzarik gabe hedatzen den izakera eskizoidea du⁸¹.

2. Literatura. Beraz postmodernitatearen sarrera hau emanik, aurreko hitzaldian bezala literaturaren bilakaeraren ikuspegi orokor bat emango dugu lehenik, bertatik literatur kritikaren ikuspegi batekin amaitzeko. Literaturari dagokionez, aurreko hitzaldian esana gogoraziko dut, esan nahi baita literatura gizarte burgesean subjektuari mundu ikuskera bat ematen zion instituzio modernoak zela. Era berean, gogoratuko dugu, inperialismo kapitalistarekin batera XX. mendearen hasieran literaturak krisi instituzional bat ezagutzen zuela, hain zuzen modernismoan eta abangoardietan gauzatu zena. Mementu honetan literatura gizarte instituzio izatetik, ekoizpen komertzial izatera igarotzen da, hots, zirkulu itxi bat bihurtzen da bere idazle profesional eta kontsumatzaile bereziekin. Honen ondorio zuzena, literaturaren mundutikako atzera egitea eta bere buruagan herstea zela ikusi dugu. Alegia, literatura bere burua idazten duen diskurtsua bihurtzen dela genioen. Joyce eta Beckett-ek gero literatura nolabaiteko hizkuntz joko bihurtzen da. Hizkuntz joko diot arazoa sinplifikatzearen.

Nik-neuk literatura modernoaren amaiera eta literatura postmodernoen —berriro ere pluralean— azalpena nolabait historikoki planteiatzekotan, zatiketa edo inflexio

(81) Gilles Deleuze & Félix Guattari, Op. cit.

puntu bat emango nuke, beti ere sailkapen historiko guztiak bezala artifizialki emana dela kontutan harturik. Zatiketa hau 1960eko hamarkadaren amaieran ezarriko dut, Frantziako *nouveau roman*-aren eta Latinoamerikako literaturaren boomaren artean. Robbe-Grillet-ek protagonizatu zuen garaiko eskandalu frantsesean⁸² nik-neuk elaberri modernoaren amaia ikusiko nuke. Elaberri era honetan beti ere gizonezko subjektu bat azaltzen da bere eraketa psikologikoaren barreiaketaren mugetan. Subjektu honen nortasun eraketari, elaberrian zehar hedatzen diren literatur "teknika" zail, sofistikatu eta barrokoek eusten diote. Nolabait, Robbe-Grilletten elaberrietan subjektuak testuaren eraketa literarioari esker dirau. Mementu honetan subjektua, subjektu moderno, testu literarioen baliapideekin berdintzen da eta fenomeno bera bihurtzen⁸³. Literatura literalki hitz joko bihurtzen da, eta hitz joko honek edozein subjektibitatearen posibilitatea deuseztatu egiten du. Finean literaturak bere izakera nagusia azaleratzen du: hizkuntzatasuna. Azalpen honek literatur moderno instituzioa bere jatorrian eratu zuen oinarria azalatu du: hizkuntzaren erabilera instituzionaldu batek subjektu moeta bat sortzen badu, hizkuntzaren erabilera hau testuan geratu den funts bakarra gertatu denean, hark sortutako subjektu moderno desagertu egiten da. Abangoardiez gero ikus daitekeen hizkuntz jokoekiko joerak agian *nouveau roman*-ean du bere azken hatsa.

Era berean, eta 70-eko hamarkadaren hasieran, literatura latinoamerikarraren boomarekin alderantzizko prozesua ikusta dezakegu. Alegia, García Marquez, Rulfo eta abarrek inauguratzen duten ildoak (Borges eta Cortazarrenak baino gehiago), moderno ez den literatura moeta bat inauguratzen du. Literatura honen ez-modernotasuna, eman zitzaion izendaketa moderno paradoxikoak adierazten du: errealismo fantastikoa. Hizkuntza errealistakiro erabiltzen bazen ere kanon modernoak bereganatuz, emaitza ez zen errealista, magikoa baizik; hots literatura modernoaren hasieratik entseiatzen ez zen emaitza fantastikoa zen. Errealismo latinoamerikarrak elaberri gotiko ingeles edo ipuin erromantiko alemaniarren antz handiagoa du. Haatik, izendaketa moderno honen paradoxak beste zerbait azaleratzen du, literatura honen izaera ez-moderno hain zuzen. Literatura honek ez du izendaketa moderno onartzen. Boom latinoamerikarra eratzen duen beste faktorea ekonomikoa da. Hau da, argi dago zenbait argitaletxe espainiarren sorketa komertziala izan zela. Baina hain zuzen arrakasta komertzial honi zor dio literatura latinoamerikarrak bere izatea. Hizkuntza komertzialik arruntenean zera esango genuke, salgarria suertatu zelako bizi dela literatura latinoamerikarra. García Márquez-en nobel saria ezin da bestela ulertu. Aldiz *nouveau roman*-a, eskandaluaren lehen uneak pasata, unibertsitate mailan bakarrik bizi ahal izan den elaberri moeta da. Ez da izan komertziala inolaz ere.

Subjektuaren arazoari berrelduz, literatura latinoamerikar honek, subjektibitate ez-moderno bat ahalbidetu zuela eta honetan datzala bere izatea eta arrakasta komertziala esango nuke. Har dezagun adibidetzat libururik ezagunena *Cien años de soledad*⁸⁴. Lan honetan ez dugu gizabanako burges moderno. *Cien años de soledad*-eko subjektua subjektu kolektiboa da: *Buendía* familia eta zentzu zabalago batetan *Macondo* herria. Liburu honetan ez dugu, Dostoiyevsky, Proust edo Joyce-ren elaberrietan

(82) Alain Robbe-Grillet, *Pour un nouveau roman*, Paris, Minuit, 1963.

(83) Ikus adibidez, Alain Robbe-Gillet, *Le voyeur*, Paris, Minuit, 1955; *La jalousie*, Paris, Minuit, 1957.

(84) Gabriel García Marquez, *Cien años de soledad*, Buenos Aires, Editorial Sud-americana, 1967.

bezala, bere izateagatik borrokatzen den bakarko subjektuaren borroka galdua eta irabazia. Bertan *Macondo* esan diezaiok egun subjektuaren jaiotza eta heriotza kondatzen zaigu. Eta elaberria irakurri duen orok gogoratuko du zein zail suertatzen den *Buendía* familiako pertsonaiak, batez ere gizonezkoak, desberdintzea. Izan ere bata bestearen kopia edo aldakitzat ematen baita, beren izatea ez datorkielarik beren barkarkako ekintzatik baizik eta familiarengandik jasotako ezaugarri ia hereditarioetatik. Tautologikoa badirudi ere elaberri honen subjektua ez da modernoa, ez du ohi genituen lehen munduko elaberrietako heroiekin zerikusirik, modernitatetik at hirugarren munduan sortutako Latinoamerika ez-moderno honetan sortua da subjektu hau eta beronen azalpen da. Latinoamerikako errealitateak nortasunik lortu badu lehen munduko merkatuetan, elaberri hauetan izan da; hirugarren munduaren bestetatsuna (alteritatea) elaberri hauen bidez antzeman izan dugu lehen aldiz modernitatearen seme garen lehen mundukook.

Literatura latinoamerikarra inflexio puntutzat eman badut, II. Mundu Gerraz gero subjektu ez-modernoehi ahotsa eman dien literatura desberdinak anitz dira. Hain zuzen, subjektu modernoak bazterreratu zituen subjektibitate-era adina dira. Latinoamerikako elaberriarekin batera hirugarren mundu ez-modernoak literatura heterogeneo asko eman ditu. Bi autore, berriro ere arrakastakoak, aipatzearen Salman Rushdy eta nobel literatur sari nigeriarra, Soyinka⁸⁵, aipatuko nituzke. Rushdy-ren elaberri ezaguna, *Gauerdiaren umeak*⁸⁶, Indiako ahozko literaturaren tradizioan oinarritzen da eta irakurle modernoari umetako ipuin fantastikoen kondaketa amaitezina iruditzen zaio. Askotan aldarrikatu da egun, hitz jokozko literatur entseiu abangoardista eta modernistak amaitu direnean, literatura eredu errealistetara itzuli dela, alegia istorioak berriz kontatzera. Hau baieztapen moderno bat da, errealismo hemeretziarraren nostalgiak eragina. Gauzak eta pertsonaiak berriz kontatzeari ekin bazai, kontatzen diren gauza eta pertsonaiek ez dute errealismoarekin zerikusirik, errealite ez-modernoehi subjektuen idorokunde eta kontakizunekin baizik.

Beste literatura postmoderno apagarria emakumeena izan da. Hots emakumeek idatzi baina emakumeek bakarrik irakurtzen ez dituzten testuez ari naiz. Alegia, emakumea subjektu hizlarizat izanik, orokorki publiko zabalak irakurtzen dituzten testuei naxkie. Nolabait esateko, emakumeek kondatzen dutena lehen aldiz interesgarria, eta beraz ez-marginala, suertatu da irakurle orokorrarentzat, eta literatura modernoan ez bezala, ez *malgré d'être femmes* baizik eta idazleak emakumeak direlako. Marguerite Duras, Marguerite Yourcenar, Isabel Allende, Margaret E. Atwood eta Chrysta Wolf bezalako idazleak inoiz emakumeek izan ez duten arrakastaren lekuko dira. Duras-en *Maitalea*-ko⁸⁷ edo Wolf-en *Casandra*-ko⁸⁸ subjektuek ez dute zerikusirik subjektu errealistarekin, nolabait "errealistakiro" kondaturik badaude ere. Elaberri hauek beste subjektibitate ez-moderno bat azaleratzen dute eta komertzialki arrakastatsu gertatu diren heinean gizarte eragina eta izatea hartu dute.

(85) Ikus adibidez, Wole Soyinka, *The Interpreters*, Londres, Heineman, 1965; *Mandela's Earth and Other Poems*, New York, Random House, 1988.

(86) Salman Rushdie, *Midnight's Children*, Londres, Jonathan Cape, 1981. Rushdie eskandalua artikulu hau idatzi ondoren gertatu zen, baina era berean hemen defendatutako tesia indartu baino ez du egiten. Lehen munduan pentasaezina litzatekeen agindu batek (Ayahtola Jomeini-ren hilketa agindua) elaberria isilerazi beharrean arrakastatsua go bihurtu du.

(87) Marguerite Duras, *L'Amant*, Paris, Minuit, 1984.

(88) Christa Wolf, *Calandra: A Novel and Four Essays*, New York, Farrar, Strauss, Giroux, 1984.

Azken sail bat ere ikutu nahi dut, literatura modernoaren instituzioaren barnean lekurik ez zuten masa literatura (herrikoi) desberdinak hain zuzen. Elaberri poliziakoak, fantasiakoak, zientzia fikziozkoak edo maitasunezkoak (arrosak) aipatu nahiko nituzke. Modernitatean kritika unibertsitariak ez-seriotzat baztertutako elaberri forma herrikoi hauek postmodernitatean beste status bat lortu dute⁸⁹. Status hau beren arrakasta komertzialarekin loturik dator. Hau da, elaberri hauek oraintsu arte marginalizat kontsideratzen ziren heroi ez-modernoen istorioak dira. Guzti hauek berriz ere “errealistakiro” kontatuak badira ere, ez dute zerikusirik errealismoarekin. Fleming-en espioi elaberriak, Simenon-en detektibe elaberriak edo William Gibson-en cyberpunk deritzon zientzia fikziozko *Neuromancer*⁹⁰, arrakastadunak bezain ez-errealistak dira. Orain artean marginalizat kontsideratu izan diren subjektibitate hauen lekuko postmodernoak dira.

Dagoeneko literatura modernoaren heriotzaz hitz egin badugu ere, bere gizarte hegemoniaren heriotzaz ihardutea zehatzagoa litzateke. Izan ere literatura modernoak badirau nolabaiteko literatur postmoderno moeta bezala: literatur unibertsitaria. Aurreko hitzaldian definitu dugun literatur modernoaren “bere buruagan herstea” fenomenuak gizarte zabaletik atzeratzea suposatzen du eta, beraz, bere kultur hegemoniaren galera. Ondorioa zera da, literatura modernoaren unibertsitateetako literatur kritikaren esparrura (bere abaro naturalera) erretiratu dela eta bertan bakarrik bizi dela literatura bezala. Literatura modernoaren unibertsitateetan bakarrik irakasten eta aztertzen den literatur postmoderno moeta bihurtu da. Bere merkatua unibertsitatean du. Atrofiazko fenomenu honek emaitza bitxiak eman ditu. Hala nola idazle asko irakasle bihurtu diren berauok irakatsiz tradizio modernoaren eta berauon buruak tradizio honen azken emaitzatzat. Bestalde idazle askok unibertsitaria den irakurle barentzat idazten amaitu dute, unibertsitateetan hitzaldiak emanez eta liburuak salduz bizi direlarik. Beraz literatura modernoaren, behiala hegemonikoa, literatur postmoderno ez-hegemoniko moeta bat bihurtu da.

Hasieran literatura postmodernoak —pluralean— esan dut zeren adibidetzat aipatu ditudan literatura moeta hauek heterogeneoak dira. Ez zaie literatur eredu berrari —moderno— atxikitzen eta ezin dira parekatu, diferenteak dira. Aitzitik, literatura guzti hauek nolabait literatura modernoaren maileguak dakartzate eta mailegu hauen barneraketa eta kritika desberdinak bateratu eta desberdintzen ditu berauon artean. Lehen esan bezala literatura modernoak baztertutako subjektibitate-era adina literatura dira. Literatura hauen mapa, izatez, konplexuagoa da, mugetan elkarri-gainezartzen bait zaizkio; zientzi fikzio feminista honen adibide da. Literatura hauek faktore bateratzaile bakarra dute: denak merkatuko salgai dira, liburu kategoripean barneratzen diren salgaiak dira. Merkatuzko batasun postmoderno honetatik at ez dute parametro bateratzailearik eta hain zuzen beren heterogeneitatea edo “bestetasuna” da beren ezaugarri. Liburudenda komertzial berrietan eratuta dauden sailak (zientzi fikzioa, detektibe istorioak, emakumezkoak, klasikoak, gastronomia, bidai literatura...) honen lekuko dira. Literatura hitza oraindik ere izendapen baliagarri ba-

(89) “Herrikoi” hitza badarabilt ere, ez du erromantizismoak, zabalduetako forma herrikoi *tradizionalekin* (industrializazio aurrekoak) zerikusirik. Literatur forma herrikoi hauek merkatu industrialak sortuak dira, posterromantikoak dira eta beraz “masa” izandapena “herrikoi” literatur hauen kontsumatzailea klase sozial berezi batzu baizik.

(90) Williams Gibson, *Neuromancer*, New York, Ace Books, 1984.

da, bere zentzu literalean oraindik erabil daitekeelako da: letraz —lettera-tura— osatuko salgaiak dira liburuok. Honegatik literatura modernoaren heriotzak ekarri duen ondoren postmodernoa formula erraz batean jasotzekotan zera esango genuke, literatura modernoaren hegemoniaren heriotzak literatura postmodernoa —pluralean— sortarazi dituela, literatura modernoa bera ere literatura postmoderno ez-hegemoniko bihurturik. Hurrengo sailari, teoria kritikoak, heltzeko literatura postmodernoez azaltzen diguten egoera honetatik abiatuko gara.

3. Teoria kritikoak. Hel gakizkion, beraz, lehengo eguneko hitzaldian utzi genuen gakoari: literatur kritikaren heriotza eta teoria kritikoen jaiotza. Ikusi dugun bezala literatura modernoa, alde batetik, berak baztertutako subjektibitate era ez-modernoan idazketan barreiatu da, hain zuzen literatura postmodernoetan. Bestetik literatura modernoak atrofiatzeko egoera ez-hegemoniko batean beste literatura postmodernoen artean dirauela jakin dugu, berau ere literatura postmoderno era bat bihurturik. Literatur kritikak ere antzeko efektua jasan du: teoria kritikotan barreiatu da. Lehenik teoria kritikoak deritzenek literatur kritikarekin zer erlazio duten aztertuko dugu, bertatik teoria kritikoak fenomeno zabal bezala aztertzeko ondoren.

Literatura modernoa literatura postmodernoetan barreiatu bada, literatur kritikak barreiadura bera jasan du. Literatur kritikak, ordura arte aztertzen zuen literatura modernoa zertan zertan aztertu beharrean, teoria kritikotan barreiatuak literatura honen mugak kanpotik aztertzeari ekin dio, beronen sorpen eta bilakaera historikoak aztertzeko. Kanpotik esan dut, zeren teoria kritiko hauen helburua ez da literatura modernoa instituzionalki berrindartu eta zilegiztatzea (literatur kritikak lehen egin bezala) baizik eta literaturak instituzio bezala sortzeko eragin dituen bazterketa eta eskluosioen historia egitea. Orain artean subjektuaren aldetik aztertu dugunez prozesu hau zera esango genuke, kritika hauek literatura modernoak baztertu dituen subjektu ez-modernoan bazterketa historikoki nola egin duen aztertzen dutela, baztertutako subjektu hauek aldarrikatu eta errekuiperatuz.

Baina teoria kritikoen azalpen postmodernoa ez da literatur kritikaren esparruan bakarrik gertatu, gure postestrukturalismoaren azalpenean aurreratu dugunez. Giza zientzien alor osoan gertatu den fenomeno orokor baten seinale dira teoria kritikoak. Fenomenu honen zabaltasuna ikusteko lehenik beren sorrera ikusiko dugu. "Teoria kritiko" hitza —singularrean— Frankfurt eskolak sortu zuen. Frankfurt eskola 1920-30-eko hamarkadetan unibertsitatetik kanpo institutu bat eraiki nahi izan zuten intelektual germaniar batzuk sortu zuten: Theodor Adorno, Max Horkheimer, Herbert Marcuse, Walter Benjamin e.a. Institutu honek marxismoa, psikoanalisi eta Hegel-en fenomenologia era desberdinetan nahasiz, orduko gizartea ezin disziplinatatutako kanpo hobe esplikatuko zuen ihardun teorikoari ekin zioen. Ihardun teoriko hau izendatzeko erabili zen terminoa *teoria kritiko* izan zen. Faxismoaren etorrerarekin institutuko partaideek Estatu Batuetara jo behar izan zuten eta II. Mundu Gerraren ondoren beren lanok mundu guztian zabaldu ziren⁹¹. Frantzia eta Ingalaterran zabaltzen ari ziren postestrukturalismo eta marxismozko beste teoria batzuekin nahasi zen 70eko hamarkadan, teoria kritikoaren izendapena mugimendu hauetara zabaldu zelarik. Postestrukturalismoa Frantzia edo eta materialismo kulturala Ingalaterran teoria kritiko bezala kontsideratzen dira.

(91) Martin Jay, *The Dialectical Imagination: A History of the Frankfurt School and the Institute of Social Research, 1923-1950*, Boston, Little, Brown, 1973.

Teoria kritikoen ezaugarriak nabarmenetako bat beren disziplinagabetasuna da. Hau da, giza zientzien edozein disziplinatatik mailegatzen dute “materiala” teoriarako. Hala disziplina bakoitzak ezarri dituen mugak hausten dituzte eta promiskuitate intelektualean bizi dira. Eskuarki hiru paradigma epistemologiko moderno nagusiez —marxismoa, psikoanalisi eta estrukturalismoa edo semiotika— baliatzen dira era desberdinetan eta beste edozein disziplinatatik erabat arbitrarioki mailegatzen dituzte ideiak. Era berean, teoria kritikoez ezein disziplinan dute eragina. Hala, eta adibidetzat Foucault-en azken lana⁹² hartzen badugu, semiotika eta psikoanaliaren mailebatzez eta kritikaz idatzi den teoria kritikozko lana dela esango genuke. Eta egun antropologia, psikologia, literatura eta historiako disziplinetan era desberdinetan erabiltzen den lan erabakiorra dela ezarriko genuke, halaber.

Beraz, zer da teoria kritikoa batzen eta desberdintzen dituen? Berriro ere subjektuaren arazora itzuli behar dugu. Hots teoria kritikoez modernitateak giza zientzien bidez instituzionalki eraiki duen subjektu forma modernoaren historia eta kritika izan nahi dute. Hala, teoria kritikoez subjektu modernoaren eraikuntzarako garai modernoan sortu ziren espezialitate edo disziplina instituzional desberdinak errespetatu beharrean —literatur kritika edo psikologia lekuko— instituzio-banaketan mugak gainditzen dituzte erreferentziakzko puntu berritzaletan modernitateak marginatutako subjektu-posizioak hartuz. Hala, emakumea bada modernitateak baztertutako subjektu-posizio hauetako bat, psikologian, historian, literaturan, soziologian eta gainerantzeko giza disziplinetan feminismoa deritzon teoria kritikoa ikusta dezakegu zeharka barreiatzen. Feminismoak ez du disziplina bakoitzean itxura desberdin bat, disziplinari egokitua, hartzen, aitzitik teoria kritiko bezala disziplina guztietan hedatzen da eta disziplina bakoitzak emakumea garai modernoan eta garaikidean nola historikoki marginatu duen aztertzen eta kritikatzeko du. Hala feminismoak giza disziplina moderno bakoitzarekin kritikazko diskurtsu teoriko bat hedatzen du. Gutxi gora behera gauza bera gertatzen da beste subjektu ez-moderno guztiekin, hala nola hirugarren mundua, masak, homosexualak eta abar.

Teoria kritikoen beste ezaugarri bat beren izaera epistemologiko eta politiko ez-moderno da. Alegia, giza zientzia moderno orok bilakarazi nahi izan duen zientifikotasunaren kontra teoria kritikoez ez dute zientifikotasun statusik bilatzen. Beste hitz batzutan esateko, “egia”-ren paradigma epistemologiko modernotik at jotzen dute. Aitzitik egiazkotatasunaren paradigma zientifiko moderno kritikatzeko dute subjektu moderno eraikitzen lagundu duen paradigma bezala. Garai modernoan zientzi instituzioa politikaren eta moralaren instituziotik berezita sortu bada, teoria kritikoen paradigmatik zientzi epistemologia eta politika bateratzen ditu, efektibotasuna eta estrategikotasuna bezala defini dezakegun paradigman. Hau da, hirugarren munduaz ari den teoria kritikoa, adibidez Edward Said-en *Orientalism*⁹³ liburuak hasitakoak, ez du zientifikoki hirugarren mundua deskribatu nahi. Teoria kritiko honek ez du antropologia bihurtu nahi, antropologia baita hirugarren munduari buruzko diskurtsu zientifiko eratzen duen instituzio moderno. Aitzitik hirugarren munduko teoria kritikoa (edo kritikoez pluralean) antropologia denuntziatzen du, literatura eta historiarekin batera, hirugarren mundua politikoki dominatzeko lehen munduak erabili duen instituzio kulturaltzat. Beraz hirugarren munduko teoria kri-

(92) Michel Foucault, *Histoire de la sexualité*. I-III Paris, Gallimard, 1976-79.

(93) Edward Said, *Orientalism*, New York, Vintage Books, 1978.

tikoa antropologiaren eta beste giza zientzien paradigma zientifikotik harantzago doa politika eta zientzia batzen diren diskurtsu kritiko bat eraiki nahiz. Teoria kritiko honek hirugarren mundua bere menderapen historikotik sorosiko duen diskurtsu *efektiboa* eta *estrategikoa* eraikitzea du helburu.

Egituraketa epistemologiko eta politiko honen ondorioz, teoria hauek ez dute kannon teoriko instituzional propioa errazki eratzeko joera. Feminismoa hartzen badugu adibidetzat, feminismoaren barnean hedatzen diren teoria desberdinek ezerk ere ez dituela batzen bere subjektu-posizioak baino ikus daiteke. Alegia feminismoaren aurkako teoria “feministak” (*guk* feministatzat kanpotik definitzen ditugunak) feminismoaren beharra aldarrikatzen duten teoriekin eztabaidan agertzen dira subjektu-posizio berean. Edo eta feminismo erradikalaren ondoan, hots gizonetakoak deuseztatzeak bakarrik emakumeak emanzipatuko dituela adierazten duen teoriaren ondorian, emakumeek beren izatea gizonetik erlazioan bakarrik berreskura dezaketela defendatzen duten teoria feministak aurkitzen ditugu eztabaidan.

Beste ezaugarri garrantzitsutzat teoria kritikoen izaera *historiko* berria azpimarkatuko nuke. Kritika hauek, hortaz, historikoak dira baina zentzu berri batean. Izan ere Historia kontzeptua bera moderno dela eta proiektu modernoaren barne gertzen dela defendatzen dute teoria kritikoen. Foucault-ek popularizatu duen terminoa —arkeologia— erabiltzea oso baliagarri deritzot kasu honetan⁹⁴. Alegia teoria kritikoen subjektu ez-modernoak historia modernoak nola baztertu dituen prozesuaren arkeologia (*historia*) egin nahi dute.

Azkenik, gizarte ez-akademiko edo instituzionalarekiko teoria kritikoen berreikitzen duten erlazioa azpimarkatuko nuke. Giza zientziak gizartearekiko lotura instituzionala galtzen ari dira momentu honetan. Estatu Batuetako unibertsitate berrienetan fenomeno ezaguna da departamentu teknikoek presupostu ekonomiko gero eta handiagoak eskuratzen dituztela eta aldiz giza zientzien presupostuak urtez-urte murrizten ari direla. Testuinguru honetan, teoria kritiko gisa eratzen diren disziplina, azpi-disziplina eta ikerketa berriak giza zientzia modernoak galtzen ari diren gizarte lotura berreskuratzen ari direla esango nuke eta honekin batera unibertsitate aurrekontu hobeak. Adibidetzat emakumezko disziplina eta ikerketa berriek bereganatzen dituzten aurrekontu eta dirulaguntzak aipatuko nituzke.

Beraz, teoria kritikoen deskribapen bat egiterakoan zerranda zehatzik egiterik ez dela garbi azalduko zaigu dagoeneko. Nik-neuk hiru subjektu-teoria bereizi ditut nagusitzat. Baina berauon arteko banaketa eta azpibanaketa zehatz eta garbiak ikuspegi orokor honetatik at geratu behar direla azpimarkatuko nuke. Izan ere deskribapen honetan ezinezko den zerbait egiten saiatzen ari naiz: teoria kritikoen literatur kritika bezalako instituzio baten gisara deskribatzea teoriok ez duten izaera instituzional bat egotea da. Teoria hauen barreiaketaren berri zehazki ezin ematea teorion beren ezaugarria da. Guzti hau kontutan hartuta hiru teoria kritiko multzo banatuko ditut: masei buruzkoak, emakumei buruzkoak eta hirugarren munduari buruzkoak. Azkenik literatur kritikaren egoera postmodernoaren argibide batzuz amaituko dut.

3.1. Masa kultura. Detektibezko nobela eta filme beltzari (film noir) buruzko lanak, edo zientzi fikziozko ikerketak aspaldidanik idatzi izan badira ere, beti ere literatur eta filme kritikak eskatzen duten “artetasun”-aren barnean literatura edo zine

(94) Michel Foucault, *L'Archéologie du savoir*, Op. cit.

on bezala definitu nahiz idatzi izan dira lanok. Egia esan, ezinezko ihardun honek fabore gutxi egin dio masa kulturari (literatura, zinea, komikiak, musika e.a.)

Masa kulturazko teoria kritikoa Frankfurt-eko eskolak hasi zuen Adorno eta Horkheimer-ek elkarrekin idatzitako liburua abiapuntu historiko delarik⁹⁵. Walter Benjamin-ek ere artikulu erabakiorra idatzi zuen garai berean argazkigintzaz eta irudien erreproduzioak sortarazten zituzten arazo berriak eztabaidatuz⁹⁶. Alabaina, 70eko hamarkadaren amaieran, eta batez ere 80koan, masa kulturazko teoria kritikoa beste joera bat hartu zuen. Alegia masa kultura kultura kanonikotzat giza zientzien instituzioen barnean ezarri beharrean, masa kultura honek kultura modernoarekin zuen erlazioa ikertzen, aztertzen eta kritikatzeko hasi zen. Honela masa kultura kanonikotzat barneratu beharrean, banaketa hau zalantzan jartzeari ekin zitzaion. Maila honetan garrantzitsua da Fredric Jameson-ek idatzi zuen artikulu dagoeneko klasikoa⁹⁷. Harrez gero Andreas Huyssen-ena bezalako liburuek⁹⁸ azterketa honi ekin diote, hots nola kultura burges modernoak bere lekua eraiki duen herri kultura baztertuz eta nola banaketa hau (kultura burgesa/herrikoia edo kultura garaia/behera) desagertuz doan II. Mundu Gerraz gero, kultura merkatuko beste edozein produktu bezala kontsumatzen hasi denetik.

Gaur egun bi korrante daudela esango nuke. Bata Estatu Batuetan Andreas Huyssen-ek argitaratzen duen aldizkariaren inguruan, *New German Critique*, eta zenbait unibertsitatetako barreiatutako autore interesgarri batzuren inguruan⁹⁹. Beste korrantea Ingalaterran University of Birmingham-go Centre for Contemporary Cultural Studies-en¹⁰⁰ eta Open University-ren¹⁰¹ inguruan hasitakoa da. Raymond Williams-en telebistari buruzko lana inauguraltzat kontsidera dezakegu¹⁰². Lanik gehienek zinez, telebistaz, masa literaturaz eta berauen arteko erlazioez dihardute. Lanok oraindik aldizkarietan topatzen dira eta ez dira liburu moduan atera. Teoria kritiko feministek ere lan itzela egin dute masa kulturaren arloan; ikus hurrengo puntua¹⁰³.

3.2. **Feminismoa.** Lehen esan dugun bezala ez da "feminismoa" eritzi dakiokkeen teoria kritiko bakarra baizik eta feminismoa bera ere teoria kritiko multzo bat da hirugarren munduaren, masa kulturaren eta abarren teoriekin gurutzubidean. Teoria kritiko feministek emakumea historikoki subjektu marginalizat nola itxuratu izan den eta itxu-

(95) Theodor W. Adorno and Marx Horkheimer, *Dialectics of Enlightenment*, New York, Continuum, 1972.

(96) Walter Benjamin, "The Work of Art in the Age of Mechanical Reproduction," *Illuminations*, New York, Schocken Books, 1969, 217-251. or.

(97) Fredric Jameson, "Postmodernism, or the Cultural Logic of Late Capitalism" *New Left Review*, 146, Uztaila-Abuztua, 1984, 53-92. or. Ikus halaber *The Ideologies of Theory: Essays 1971-1986*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1988.

(98) Andreas Huyssen, *After the Great Divide: Modernism, Mass Culture, Postmodernism*, Bloomington, Indiana University Press, 1986; *Modernity and the Text. Revisions of German Modernism*, New York, Columbia University Press, 1989.

(99) Andrew Ross, *No Respect: Intellectuals and Popular Culture*, New York, Routledge, 1989; E. Ann Kaplan, *Rocking Around the Clock: Music Television, Postmodernism, and Consumer Culture*, New York, Methuen, 1987.

(100) Adibidetza ikus Stuart Hall, et al., *Culture, Media, Language: Working Papers in Cultural Studies, 1972-79*, Londres, Hutchinson: Centre for Contemporary Cultural Studies, University of Birmingham, 1980.

(101) Ikus adibidez Tony Bennett, et al., *Popular culture: Themes and Issues*, Milton Keynes, Open University Press, 1981.

(102) Raymond Williams, *Television; Technology and Cultural Form*, Londres, Fontana, 1974.

(103) Sarah Lefanu, *Feminism and Science Fiction*, Bloomington eta Indianapolis, Indiana Univ. Press, 1988.

raketa hauek nola garai daitezkeen aztertzen dute. Teoria hauek eta mugimendu feministek gizarte lotura handia dute. Hala psikoanalistik, eta zehazkiago Lacanen psikoanalisi postestrukturalistatik, abiatzen diren teoria feminista frantsesaren autoreen artean Luce Irigaray¹⁰⁴, Julia Kristeva¹⁰⁵, Alice Jardine¹⁰⁶ edo Monique Wittig¹⁰⁷ aipatzekoak dira. Marxismotik abiatuta gizarte alderdiekin arduratuagoa den kritika feminista bilakazten dutenen artean Frantziar Christine Delphy¹⁰⁸, Ingalaterran Michele Barrett¹⁰⁹ eta Estatu Batuetan Catharine Mackinnon¹¹⁰ aipatuko nituzke. Zinea abiapuntuztat hartuta psikoanalisisa, semiotika eta masa kulturaz arduratzen direnen artean Estatu Batuetan Teresa de Lauretis-ek¹¹¹ eta Marie Ann Doane-k¹¹² lan benetan interesgarria egin dute. Maila honetan Linda Williams-en pornografiatzko lana¹¹³ era berean adibide ona da. Zientziaren kritika epistemologikoan Donna Haraway-k puntako lana burutu du¹¹⁴. Literatura modernoak emakumea nola marginatu eta itxuratu duen aztertzen saiatu direnen artean Gilbert, Gubar, Moi, Kaplan eta Showalter¹¹⁵ aipatuko nituzke eta literatura espainiarrari dagokionez Susan Kirkpatrick¹¹⁶. Hirugarren munduaren alorrean Gayatry Spivak¹¹⁷ (India) eta Trinh T. Minh-Ha-ren¹¹⁸ (Vietnam) lanek dekonstrukzioaren analisi epistemologikotik abiatuta emakumea hirugarren munduan subjektu bezala nola itxuratu izan den aztertzen dute. Azkenik feminismo lesbiarraren alorrean Diana Fuss¹¹⁹ edo

(104) Luce Irigaray, *Speculum de l'autre femme*, Paris, Minuit, 1974; *Ce sexe qui n'en pas un*, Paris, Minuit, 1977; *Sexes et parentés*, Paris, Minuit, 1987.

(105) Julia Kristeva, *Des Chinoises*, Paris, Éditions des Femmes, 1974; *Polylogue*, Paris, Seuil, 1977; *Soleil noir, depression et mélancolie*, Paris, Gallimard, 1987.

(106) Alice Jardine, *Gynesis: configurations of Woman and Modernity*, Ithaca, Cornell University Press, 1985; Paul Smith-ekin batera, *Men in Feminism*, New York, Methuen, 1987

(107) Monique Wittig, *Les guerillères*, Paris, Minuit, 1969; *Le corps lesbien*, Paris, Minuit, 1973; *Across the Achéron*, London, Owen, 1987.

(108) Christine Delphy, *The Main Enemy: A Materialist Analysis of Women's Oppression; Close to Home: A Materialist Analysis of Women's Oppression*, Amherst, Mass., University of Massachusetts Press, 1984.

(109) Michele Barrett, *Women's Oppression Today: Problems in Marxist Feminist Analysis*, London NLB, 1980; *The Anti-social Family*, London, NBL, 1982.

(110) Catharine A. MacKinnon, *Feminism Unmodified: Discourses on Life and Law*, Cambridge, Mass., Harvard University Press, 1987; *Toward a Feminist Theory of the State*, Cambridge, Mass., Harvard University Press, 1987.

(111) Teresa De Lauretis, *Alice Doesn't. Feminism, Semiotics, Cinema*, Bloomington, Indiana Univ. Press, 1984; *Technologies of Gender: Essays on Theory, Film, and Fiction*, Bloomington, Indiana University Press, 1987.

(112) Marie Ann Doane, *The Desire to Desire: The Woman's Film of the 40s*, Bloomington, Indiana Univ. Press, 1987.

(113) Linda Williams, *Hard core: Power, Pleasure, and the "Frenzy of the Visible"*, Berkeley, Univ. of California Press, 1989.

(114) Donna Haraway, *Primate Visions; Gender, Race and Nature in the World of Modern Science*, New York, Routledge, 1989.

(115) Sandra M. Gilbert eta Susan Gubar, *The Madwoman in the Attic. The Woman Writer and the Nineteenth-Century Literary Imagination*, New Haven, Yale Univ. Press, 1979. Toril Moi, *Sexual/Textual Politics: Feminist Literary Theory*, Londres, New York, Methuen, 1984. Cora Kaplan, *Sea Changes: Essays on Culture and Feminism*, Londres, Verso, 1986. Elaine Showalter (arg.) *The New Feminist Criticism: Essays on Women, Literature, and Theory*, New York, Pantheon, 1985.

(116) Susan Kirkpatrick, *Las románticas: Women Writers and Subjectivity in Spain, 1835-1850*, Berkeley, University of California Press, 1989.

(117) Gayatry Chakravorty Spivak, *In Other Worlds. Essays in Cultural Politics*, New York eta Londres, Routledge, 1988.

(118) T. Minh-Ha Trinh, *Un art sans oeuvre, ou, l'anonymat dans les arts contemporains*, Lathrup Village, Mich., International Book Publishers, 1981; *Woman, Native, Other: Writing Postcoloniality and Feminism*, Bloomington, Indiana Univ. Press, 1989.

(119) Diana Fuss, *Essentially Speaking: Feminism, Nature & Difference*, New York, Routledge, 1989.

lesbier beltzen teoriar Audre Lorde¹²⁰ aipatu behar dira¹²¹.

3.3. Hirugarren mundua. Hirugarren munduari dagokionez eta aurrez esan dugunez, teoria kritikoa hauek lehen munduak antropologia, historia eta literaturaren bidez hirugarren mundua "hirugarrentzat" nola itxuratu izan duen aztertzen eta kritikatzeko dute. Hemen ere teoria kritikoa bakar eta instituzional bat baino joera desberdinak ditugu. Seguruena Edward Said-en liburua, *Orientalism*¹²², izan da teoria askoren abiapuntua aurretik Clifford Geertz antropologoaren lanak¹²³ eragin handia izan bazuen ere. Said-en lanaz gero 70eko hamarkadan zenbait lan nolabait ildo berean azaldu ziren, hala nola Johannes Fabian-ena¹²⁴, antropologiaren historiatale James Clifford-ena¹²⁵ eta Michael Taussig-ena¹²⁶. 80ko hamarkadan bigarren belaunaldi bat sortu da, bertan hirugarren munduko idazleak parte hartzen hasi direlarik. Berauen artean, Henry Louis Gates¹²⁷, Jan Mohamed¹²⁸, Christopher Miller¹²⁹, eta V. Y. Mudinbe¹³⁰. Bestalde lehen aipatu feministak parte hartzen hasten dira: Spivak, Trinh eta abar. Maila honetan aipatzekoa da Japonen kulturalki hirugarren munduan baina ekonomikoki lehen munduan duen leku berezia. Hemen ere oraintsu hasi dira lehen lanak argitaratzen hala nola Masao Miyoshi eta H. D. Harootunian-en argitalpena¹³¹ edo hemendik gutxira ingelesez eta frantsesez argitaratuko diren Kojin Karatani-ren lanak.

4. Literatur kritika. Literatura modernoak gizarte postmodernoetan hartzen duen leku bereziaz (atrofia unibertsitaria) esan duguna literatura kritikari berari ere atxeki dakioko. Literatur kritika unibertsitariaren sektore handi batek literatura modernoaren analisi zientifikoa eutsi dio. Ondorioz bi zera gertatu dira: batetik zen-

(120) Audre Lorde, *Sister Outsider: Essays and Speeches*, Trumansburg, New York, Crossing Press, 1984.

(121) Teoria kritikoa homosexualitate oraintsu bost urte edo hasi da eta oraindik zenbait autore barreiatuena lana da. Adierazgarrientzat autore hauek aipatuko nituzke: D. A. Miller, *The Novel and the Police*, Berkeley, University of California Press, 1988. Robin Wood, *Hollywood from Vietnam to Reagan*, New York, Columbia University Press, 1986. Joshep Beam (arg.), *In the Life: A Black Gay Anthology*, Boston, Alyson Publications, 1986. Jeffrey Weeks, *Sex, Politics, and Society: The Regulation of Sexuality Since 1800*, Londres, New York, Longman, 1989. Eve Kosofsky Sedgwick, *Between Men: English Literature and Male Homosocial Desire*, New York, Columbia University Press, 1985.

(122) Op. cit.

(123) Clifford Geertz *Local Knowledge. Further Essays in Interpretative Anthropology*, New York, Basic Books, 1983; *Works and Lives: The Anthropologist as Author*, Stanford, Calif., Stanford University Press, 1988.

(124) Johannes Fabian, *Time and the Other: How Anthropology Makes Its Object*, New York, Columbia University Press, 1983; *Language and Colonial Power: The Appropriation of Swahili in the Former Belgian Congo 1880-1938*, Cambridge, New York, Cambridge Univ. Press, 1986.

(125) James Clifford eta George E. Marcus (arg.), *Writing Culture: The Poetics and Politics of Ethnography: A School of American Research Advanced Seminar*, Berkeley, University of California Press, 1986.

(126) Michael T. Taussig, *The Devil and Commodity Fetishism in South America*, Chapel Hill, University of North Carolina Press, 1980; *Shamanism, Colonialism, and the Wild Man: A Study in Terror and Healing*, Chicago, University Chicago Press, 1987.

(127) Henry Louis Gates, (arg.) "Race," *Writing, and Difference*, Chicago, University of Chicago Press, 1986; *The Signifying Monkey: A Theory of Afro-American Literary Criticism*, New York, Oxford University Press, 1988.

(128) Abdul R. JanMohamed, *Manichean Aesthetics: The Politics of Literature in Colonial Africa*, Amherst, University of Massachusetts Press, 1983.

(129) Christopher L. Miller, *Blank Darkness, Africanist Discourse in French*, Chicago, University of Chicago Press, 1985.

(130) V. Y. Mudinbe, *L'Odeur du père: essai sur des limites de la science de la vie en Afrique noire*, Paris, Présence Africaine, 1982; *The Invention of Africa: Gnosis, Philosophy, and the Order of Knowledge*, Bloomington, Indiana University Press, 1988.

(131) Masao Miyoshi eta H. D. Harootunian, (arg.), *Postmodernism and Japan*, Durham, Duke University Press, 1989.

bait departamentuk gaur egungo literatur ekoizpenari bizkar eman eta kritikari be-rezko zaion espazio historikoan babestu da: II. Mundu Gerra aurreko literatura. Europan eta Estatu Batuetan literatur kritika hau estrukturalismoan, postestruk-turalismoan eta aurreko beste zenbait bilakaera zaharragotan —adibidez kritika berria, *new criticism*— oinarrizten da¹³². Besteak beste 1968ko krisiaz gero beste hiru litera-tur kritika mugimendu berri bereiz ditzakegu atrofiazko mugimendu honen barne-an. Hiru mugimenduok eraberritze teoriko bat entseiatu dute literatur kritikaren instituzioaren barnean berau indartu nahiz. Lehenengo biak Estatu Batuetan sortu dira Europako korrante desberdinen inportazio gisa: *literatur dekonstrukzioa* eta *histo-rizismo berria* (*new historicism*). Lehen Jacques Derridaren dekonstrukzio postestruk-turalista eta filosofikoaren literatur domestikazioa da. Bigarrena Ingalaterrako kultur materialismoaren ordain kritiko instituzionala da. Bi mugimenduok inportazioak bereganatu, formalizatu eta literatur kritikaren instituzioaren barnean berrezarri di-tuzte. Hirugarren mugimendua *harrera estetika*, *Rezeptionsästhetik*, da. Bera literatur kritikaren barnean sortua da eta bere ordezkariak ditu bi kontinenteetan. Europan Alemaniako Konstantzako eskolaren inguruan kokatu da eta Estatu Batuetan neo-pragmatismoa deritzon mugimenduan du anaia bikia.

Hiru literatur kritika era berri hauetan, kanonikoak bihurtu diren testuen azter-ketari eutsi zaio eta ehunka batzuren espezialistak bakarrik irakurtzen dituzten lanen ekoizpen hertsia bati ekin zaio. Literatur testuak emanak daudenez, ikuspuntu kriti-koa eraldatu baino ez da egiten inoiz ere literatura beraren instituzioa historikoki kuestionatu gabe. Azkenean, literatur kritika honek, gizartearekiko lotura edo erla-zio oro galdu du eta bera ere literatur ekoizpen berezi bihurtu da, literatur kritikaren literatura. Hitz giltzarria “interpretazioa” da; literatur kritika hauek interpretazioak ekoizten dituzte etengabe inflazio interpretatzaile instituzionala sortuz azken finean.

4.1. **Literatur dekonstrukzioa**¹³³. Korrante amerikar hau Yale University eta University of California, Irvine-n¹³⁴ artean Paul de Man¹³⁵ burutzat hartuz eraiki den talde dekonstruktiboa da. Literatur kritika hau dekonstrukzioa aparailu kritikotzat erabiliz literatur testuak dekonstruktiboki interpretatzeari datzekio beti ere aurrez antzeman litezkeen emaitzetara iristeko. Harold Bloom¹³⁶, Geoffrey Hartman¹³⁷, Hillis Miller¹³⁸, Barbara Johnson¹³⁹ e.a. dira korrante honen adierazlerik garbienak. Ha-

(132) Giza zientzien joera erreakzionario orokor honen bi adibide gisa ikus: Alain Finkielkraut, *La dé-faite de la pensée: essai*, Paris, Gallimard, 1987 eta Gilles Lipovetsky, *L'ère du vide: essais sur l'individualisme con-temporain*, Paris, Gallimard, 1983.

(133) Literatur dekonstrukzioaren ikuspegi instituzionaldu bat izateko ikus Jonathan Culler, *The Pursuit of Signs. Semiotics, Literature, Deconstruction*, Ithaca, New York, Cornell University Press, 1981; *On Deconstruction: Theory and criticism After Structuralism*, Ithaca, New York, Cornell University Press, 1982; *Framing the Sign: Criticism and Its Institutions*, Ithaca, New York, Cornell University Press, 1982.

(134) Orain zenbait urtedanik udaberriko hiruilabetean Jacques Derrida-k bertan ematen ditu klaseak. Lehenago eta hamar urtez Yale-n eman zituen.

(135) Paul De Man, *Blindness and Insight*, New York, Oxford University Press, 1971. Liburu honetan De Manek Derridarekiko bere diferentziak eta kritika azaltzen ditu. Ikus halaber *Allegories of Reading*, New Ha-ven eta Londres, Yale Univ. Press, 1979.

(136) Harold Bloom, *The Anxiety of Influence*, New York, Oxford University Press, 1973.

(137) Geoffrey H. Hartman, *Criticism in the Wilderness: The Study of Literature Today*, New Haven, Yale University Press, 1980.

(138) J. Hillis Miller, *The Ethics of Reading: Kant, de Man, Eliot, Trollope, James, and Benjamin*, New York, Columbia Univ. Press, 1987.

(139) Op. cit.

laere ezaugarri bat da nagusi: atrofia. Literatur kritika hau garai modernoetan egin zenaren atrofia baino ez da¹⁴⁰. Historizismo berriarekin (ikus behean) erkatuz gero interpretaturako literatur garai nagusia erromantizismoa da. Eta faktu hau erabat esanguratsua da nolabait eskola honek erromantizismoak eraikitako literatur kanonaren instituzionalizazioari baino ez baitatxekio¹⁴¹.

4.2. Historizismo berria. New Historicism¹⁴². Talde honetako burua Stephen Greenblatt¹⁴³ da eta University of California, Berkeley-n dago lekturik gehien. Bere erroak alde batetik Foucault eta Geertz antropologoaren lanetan eta bestetik Ingalaterrako materialismo kulturallean¹⁴⁴ aurkitzen dira. Dekonstrukzioa erromantizismoan oinarritzen bazen, historizismo berriak literatura ingeles isabeldarra du foko. Testuaren garaiko edozein fenomenu historiko abiapuntuztat hartuta, irakurlegoa, idazleen ogibide moduak, lan kontratuak e.a., testuak berrirakurtzen ditu beti ere zentzu historiko zabalagorik gabe. Alegia, historizismo berriak literatur testuaz kanpoko datu historikoak interpretazio puntu berrizat hartuz literatur testua berrinterpretatzen du era sasi-historiko batean¹⁴⁵. Azkenean efektua literatur testua bere literaturtasunean berrindartzea da¹⁴⁶.

4.3. Harrera estetika eta neopragmatismoa. Korrante bikoitz hau paradigma epistemologiko beraren bi hedapen desberdin baino ez da.

Biak Husserl, Heidegger, Gadamer eta zenbait filosofia analitikoren hedapen kritiko dira. Bi korranteok testuaren izatea bere interpretazio edo harreraren datzala baieztatzen abiatzen dira subjektu hartzailearen eta harreraren kondizio instituzionalen inongo galdaketarik gabe. Subjektu hartzailea bakarra eta arazogabea dela eta subjektua izatez gaitasun estetiko hornitua dela abiapuntu axiomatikoak dira kritika hauetan¹⁴⁷. Harrera estetika Alemanian hasi zen postestrukturalismoaren ondotik

(140) Literatur dekonstrukzioaren ikuspegi kritiko bat izateko ikus Don Wayne, "Gnosis without Praxis: On the Dissemination of European Criticism and Theory in the United States", *Helios*, n.s. 7 (2), 1-26. or. Don Wayne-ren tesia zera da, literatur dekonstrukzioa kritika berriaren formalizazio interpretatiboaren aldaki dekonstruktibista baino ez dela.

(141) 1987. urtean Paul de Man-ek bere gaztaroan idatzi zituen nazien aldeko zenbait artikulua aurkitu ziren bi aldizkari belgiarretan. De Man "faxista"-ren agerpenak literatur dekonstrukzioaren norantza erabat aldatu du nolabait lehenaldi "faxista" izan duen korrantearen aita ezin defendatuz. Eztabaida batez ere *Critical Inquiry*-n argitaratu da 14.(3) eta 15.(2) liburukietan. Besteren artean Derridak berak idatzi du.

(142) Ikuspegi instituzionaldu batentzat ikus Harold A. Veesser, (arg.), *New Historicism*, New York eta Londres, Routledge, 1989.

(143) Stephen Greenblatt, *Representing the English Renaissance*, Berkeley, University of California Press, 1988.

(144) Materialismo kulturala Ingalaterran batez ere Manchester eta Sussex-ko unibertsitateen inguruan zabaldu den teoria kritikoa da. Berez toki berezi bat beharko luke azalpen honetan baina leku ezak horrela ez izatea erabaki du oraingoz. Besteren artean bi lan hauek aipatuko ditut teoria kritiko honen adibidetzat: Jonathan Dollimore & Alan Sinfield, (arg.), *Political Shakespeares: New Essays in Cultural Materialism*, Manchester, Manchester University Press, 1985; John Drakakis, (arg.), *Alternative Shakespeares*, Londres eta New York, Methuen, 1985; Jean E. Howard, "The New Historicism in Renaissance Studies", *English Literary Renaissance*, 16 (1), 13-43.

(145) Testurik adierazgarritzat ikus Jean E. Howard & Marion F. O'Connor, (arg.), *Shakespeare Reproduced: The Text in History and Ideology*, New York & Londres, Methuen, 1987.

(146) Historizismo berriaren kritika batentzat ikus Don Wayne, "Power, Politics, and the Shakespearean Text: Recent Criticism in England and the United States" in Howard and O'Connor, op. cit., 47-67. or.; "New Historicism" (agertzear) in M. Kelsall et al., (arg.) *Literature and Criticism: A new Century Guide*. Carolyn Potter, "Are We Being Historical Yet?", *South Atlantic Quarterly*, 87:4, Udazkena, 1988, 743-786. or. Kritika guztiek historizismo berriaren ez-historikotasunean eta bere instituzio-indartze joeran bat datoz.

(147) Ikuspegi orokor batentzat ikus Culler, 1981.

Konstantza-ko unibertitatean eta Hans Robert Jauss¹⁴⁸ eta Wolfgang Iser¹⁴⁹ ditu ordezkari nagusien. Pragmatismo berria edo neopragmatismoa¹⁵⁰ deritzona, Stanley Fish¹⁵¹, Walter Benn Michaels¹⁵² eta filosofiaren arloan Richard Rorty¹⁵³ ditu ordezkari nagusien. Korrante honek historizismo berriarekin eta literatur dekonstrukzioarekin zeharkako harremanak ditu. Oro har ez da bere oinarri kritikotetan harrera estetikatik bereizten.

Korrante guzti hauek literatur kritikaren atrofia hegemonikoa erakusten dute eta beraiek dira heriotza gertu baten azken lekukoak.

(148) Hans Robert Jauss, *Towards an Aesthetic of Reception*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1983.

(149) Wolfgang Iser, *The Implied Reader; Patterns of Communication in Prose Fiction from Bunyan to Beckett*, Baltimore, The Johns Hopkins University Press, 1974; *The Act of Reading: A Theory of Aesthetic Response*, Baltimore, The Johns Hopkins University Press, 1978.

(150) Neopragmatismoaren kritika baterako ikus agertzearen lan hau: Fredric Jameson, *Postmodernism or the Logic of Late Capitalism*.

(151) Stanley Fish, *Is There a Text in This Class? The Authority of Interpretive Communities*, Mass., Harvard University Press, 1980.

(152) Walter Benn Michaels, *The Gold Standard and the Logic of Naturalism*, Berkeley, Los Angeles, London, University of California Press, 1987.

(153) Richard Rorty, *Philosophy and the Mirror of Nature*, Princeton, Princeton Univ. Press, 1979.